



YVES SALLABERRY 'XALA'

«Konturatu nintzen pilotan
beharrezkoa dela
agresiboagoa izatea»



Kantagintza

Maddi Oihenart, Anje Duhalde, Niko Etxart, Pier Paul Berzaitz, Jojo Bordagarai eta Maialen Errotabehereren ahotik

Larrun

Nafarroako konkistaren historiografia

Mari Karmen Agirre Lekue

Gasteizen euskarari lehentasuna eman dion botikaria

Net Hurbil

Krisiak badu irtenbidea: zor publiko guztien auditoria

Henry Bengoa Inventarium

25 urte eta gero, Hendaian taularatuko dute Atxagak, Iturraldek eta Strubellek

Ibilaldia Trapagaranen

Ekuadorko eskola bat laguntzeko lanean ari dira Itxaropena ikastolako ikasleak



jaietan
euskaraz

kiroletan
euskaraz

gozatu
euskARAZ

Noranahi goazela. Nonahi gaudela.
Gure jendearekin. Gure iritzia adierazi
nahi dugunean, geure erara. Euskara
gure bizimoduaren osagaia da.
Berezkoa dugu. Lagunen artean, gure
giroan, **gure artean euskaraz.**



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: SS-837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko parteidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



Deabruaren abokatua

- **Leire Lopez Ziluaga:** «Musika 'egizu zuk zeuk' filosofiaduna izango da edo ez da izango». ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

- **Kantagintza.** Berrituz doan tradizioa. MIKEL ASURMENDI / 5

Pertsonaia

- **Yves Sallaberry 'Xala':** «Lehenengo mailan ezinezkoa da pertsona hotz-hotza izatea». MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 10

Gaiak

- **Trapagarango Itxaropena ikastola.** Goazen lagunok! ALEJANDRA GOIKOETXEA / 16

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENTA / 19
- **Hik Hasik Hazi Hezi.** JOXE MARI AUZMENDI / 20
- **Txandan** Pentsamendu positiboa. CASTILLO SUAREZ / 20
- **Hiru hilabete bakarrik izango dira.** OIER ARAOLAZA / 21
- **Hiruko txikian** Eñaut Larralde. JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- **Bertso berriak** Amunari. JULIO SOTO / 22

Erdiko kaiera

- **Literatura.** Berrinventarium. GORKA BEREZIARTUA / 23
- **Eñaut Larralde.** Oroiminez. ITXARO BORDA / 25
- **Antzerkia.** Antzokitik atera, ikuslearengana hurbiltzeko. UXUA LARRETXE / 26
- **Liburuak** SAIOA RUIZ GONZALEZ / 28
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 29
- **Ezpalak** JON TORNER / 30
- **Abarrak** UNAI BREA / 31
- **Ihesi Orio (Gipuzkoa).** Kostaldearen beste ikuspegi bat. IRATI SARASUA ARABAOLAZA / 32
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34
- **Osasuna** JABIER AGIRRE / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Makina erreminta.** Itxaropena Asia da. DANIEL UDALAITZ / 39
- **Mari Karmen Agirre Lekue:** «Euskarak prestigioa ematen digu farmazian». MIEL A. ELUSTONDO / 42
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46
- **Maltzagatik** XABIER LETONA / 47
- **Net Hurbil** Gure dirutik nork zenbat ostu du eta nora eramán? PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **PSN.** KIKE DIEZ DE ULTZURRUN SAGALÁ / 50



“Musika ‘egizu zuk zeuk’ filosofiaduna izango da edo ez da izango”

Leire Lopez Ziluaga

Musikaren gaineko ikuspegi kritikoa, edo kritikatzaila.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Núria Juan Serrahima

ETA hil da, biba euskal poparen aro loriatsua!

Lelo hori “Rock matxiruloa hil da, biba euskal *riot grrrl*-en aro loriatsua!” bezain irreal da; baina aukeran nahiago dut bigarren hori.

Hasi zara arraro hitz egiten, musikaz aritu ohi direnak bezala; ez ahortzi ezer galdetzeko erantzunak ulertu egin behar ditudala.

Zailagoa da neoliberalen eufemismoak ulertzea, eta gobernatzen uzten diegu. Nahi baduzu, esango dizut Balerdi Balerdiren eta Beti Muganen itzulera aro loriatsuaren izpi dela.

Dena ez dago galdurik, beraz.

Dena galduta dago; horregatik, Emma Goldmani kasu egin eta iraultza dantzan egiten saiatu beharko dugu, nik neuk ez iraultza ez dantza egiten ez dakidan arren.

Ez iraultza ez dantza, bai ordea kritikatzeko. Zer egin dizu zuri Euskal Rock Erradikalak?

Autogestiotik sortutako zerbait marka komertzial bihurtu izanak amorrua ematen dit. Gainera, interesgarriagoak iruditzen zaizkidan taldeak estali zituen.

Ados, hitz egin dezagun musikaz beraz: kontzertu batean gorroto dituzun gauzen top 3a entzuteko irrikan gaude...

Testosterona superabita, bertuosismo merkea —normalean jende bera izaten da kasu bie-

tan)— eta kontzertuan etengabe hitz egitea, argazkiak ateratzea, eta abar.

Feminismo liberala ere esango zenuela uste nuen.

Musikaren munduan ezagutzen ditudan feminista gehienak erradikalak dira, zorionez. Feministatik ezer ez duten liberal asko dago, hori bai. Gehienak gizonak.

Baina abangoardia izan gara sexualitate kontzertuan. Hara Dominika Etxart, lehen euskal abeslari transgeneroa.

EAEko Kultura sailburuak sexu binarismoaren kontrako ekintza egin nahi izan zuen, baina ez genuen ulertu.

Merezi ez ditugun politikariak ditugula, alegia.

Oso *queer*-ak, eta musikazaleak, gainera. Ziur Patxi Lopez *queercore*-a ere gustatzen zaiola.

Patxi Lopez, historiara lehendakari indie gisa pasako dena!

Patxi Lopez eta *indie*-ak, horra kontzertu batean jasan ezin ditudan beste bi gauza.

Musika indie-a izango da, ordea, edo ez da izango!

Musika “egizu zuk zeuk” filosofiaduna izango da edo ez da izango. ■



Kantagintza

Berrituz doan tradizioa

Baionatik Bilbora bide egin zuten iazko abenduan eta gure kantagintzaren emanaldia eskaini zuten Euskalduna Jauregian. Aurten, martxoan, beste agerraldi bat egin zuten Donostiako Kursaallean. Ekainaren 16an, bestalde, Euskal Herriko Kantu Txapelketa jokatu da Donostian. Kantagintzaren bidea urratu duten kantari eta kantazale horietako batzuegana bide egin dugu. Eleak, doinuak eta pasadizoak dakartzkigu.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco



ANJE DUDALDE, PIER PAUL BERZAITZ, Niko Etxart, Maddi Oihenart, Jojo Bordagarai, Maialen Errotabehera... Lapurdi, Zuberoa eta Baxenabarreko hiru belaunaldiko kantariak. Ipar Euskal Herriko 40 urteko kantagintzako eredu edo lagina. Anitz baitira kantariak, anitz kantazaleak. Konparazione: Marie-Agnès Gorostiague eta Jone Barneix, Irulegi Irratiko esatariak eta Euskal Kantu Txapelketako sustatzaileak. Eurengana guztiengana hurbildu gara, baita luzaz mintzatu ere kantagintzari buruz. Hona, solasaldian eskaini dizkiguten ele, doinu eta irudi frankoetatik argazki bat.

Zuberoan barna abian

“Aitak ez zuen bozik. Amaren aldetikoez bai. Ama Altzürükütik jina zen Muskildira. Familian kantariak ziren denak, orain ere bai. Amaren aitonetako bat Irlandatik heldu zen,

Ezkerrean
Pier Paul Berzaitz.
Esquinean, Maddi
Oihenart eta Niko
Etxart. Hiru
zuberotar, hiru estilo.

akordeoi diatoniko batekin heldu ere. Amak bere aitak ere jotzen zuela erraten du, hamabi haur ziren...”. Pier Paul Berzaitzen hitzak dira. “Muskildiko San Antonio ermitan beilak izaten ziren, *manexak* ziren dominanteak kantuak ematean. Larzabale, Donibane-Garazi edo Hazparnetik jinak ziren, ez aski zuberotarrak nagusitzeko alabaina”.

Maddi Oihenarten mintzoa haxe: “Gure etxean aita-ama entzun ditugu kantuz, sortu aitzin jada sentitzen omen da kantua. Baina etxeko irratitik frantsesezko kantuak entzuten genituen. Barkoxen ez zen besterik. France Inter, Montecarlo... Brassens, Brel, Barbara... Kantu anglosaxoiak ere, baina aise gutxiago”.

Niko Etxart bizpahiru urterekin heldu zen Parisera. Oporretan etortzen zen Zuberoara: “Azken bakantzetan jin ginelarik —anaia Jean eta lehengusuak— Etxahun Iruri, Kopen eta

Garat Arhan ziren azken txirulariak. Pette Etxekoparrek eta Jean Mixel Bedaxagarrek guk txirula jo eta kantuz konplexurik gabe egiten genituela diote...". Etxartar gazteak, euskal kantaren eragile berriak izan ziren.

Frantsesa sukaldeetan sartzen zen bala-bala irratien bidez. Mendietan berriz, *Belatxa* kantaren azken hotsa entzuten zen doi-doi: "Belatxa hegaztiaren hegaldia adierazten du doinu horrek, ez dauka hitzik. Belatxak –zerutik hegazbehealde nola behatzen duen transmititzen du. Gilen Ephherrek Altzürükün eman ohi zuen. Metafora polita da. Belatxa pertsona da, oiloak edota txitak begiratzen ditu", diosku Berzaitzek.

Etxart eta Oihenartek diotenez, egun Etxekopar, Bedaxagar eta Axiari musikariek beren maneran abesten dute *Belatxa*: "Mirakulua duzu. Mirakulua ere, oro har, kantuak iraganetik egundaino ekartzeko egin den ahalegina. Orduan kantari asko zegoen, ahotsak sekulakoak ziren, ederrak, indartsuak... Elkartasunean eta elkarrekin bizitzeko harremana lantzen zuten kantuaren bidez, eta hori ari da aldatzen egun".

Antzina –diote biek– pertsonak ingurumenean parte-hartzen zuen eta ingurumenak hartzen zuen pertsona. Horrek sortu du pertsonaren nolakoa, pertsona ingurumenarekin sortzen baita. Lehen jendea kanpoan ari zen kantan, zabalki, plazan, egun aldiz mikrofonoz. Kanta ez da modu berean lantzen. Horrek aldatu du kantua.

Zuberoan hartaz –mendigoietan–, goragotik kantatzen da Lapurdin baino. Tradizioak ere badu eragina. Kostaldean azken moda nagusitzen da, Zuberoan –Biarritz eta Baxenabarren ere– kanta badu zentzu mistiko bat, ingurumenak biziagotua, lurrari lotua. Dantzarekin berdin, edonork ez du zuberotar dantzan egiten. Zuberoak gorde du dimentsio mistiko hori: "Ene aitak [Dominika Etxartek] ez zekin abotsa kontrolatzen, beti potenteki abesten zuen, eta halako anitz dituzu" dio Etxartek.

Michel Labeguerie eta Hegoaldea

Berzaitzek Muskildiko eskolaldia uros iragan zuen. Gaztetan Maulera joan zen. Zaila izan zen hasiera. "Zokoratua nintzen pixka bat, sentimendu bat da, ene pertzepzioa... Agian ez zen horrela". Muskildi, Atharratze edota Larraineko gazteek Mauleko burgesiaren giroa ezagutu zuten: "Bai aurpegiz bai izatez, diferenteak ginen, Mauleko burgesia hori frantses-



tua zen arras. Gutaz trufatzen ziren, geure mintzatzeko maneraz. Egun berriz, garaipen pertsonal gisako bat sentitzen dut. Gure musika 'erosten' dute, errekonozimendu gisakoa da, orduan frustrazio handia zen-eta".

Hazpandar txistulari batek argitu zion bidea Berzaitzi. Hark etxeko abesti zenbait ematen zuen, berak The Beatles behatzen zuen. Euskaraz mintzo zen, eta musika eta abestiak euskaraz egiten zituen: "Espiritua zabaldu zidan. Frustrazioa minik handienetarik bat zela erran zidan, euskaldunok biziki pairatu duguna, kasu egin behar nuela. Euskaldunok hiru aukera genituela zioen: armak hartzea, Parisera joatea –frantsesa bihurtuz– edo hirugarrena, ikasi eta borrokatzea. Borrokatu laborantzian, enpresan, kulturaren esparruan... Kontzientzia ireki zidan". Handik lekora Beñat Sarasola eta Joanes Borda ezagutu zituen, haiek ere frustrazioa bera bizia zuten. Meza euskaraz eman nahi zutelako apaizgotik bota zituzten. "Beñatek Urdiñarbeko bes-tetara eraman ninduen: Mikel Laboa, Lourdes Iriondo, Jose Angel Irigarai... kantuz entzun nituen".

18 urterekin joan zen Arrasatera lehen aldiz. Kantaldia izugarria izan zen. Ukituta eta hunkituta geratu zen. Baita Villabonara joan ere, eta beldurtu. Gurasoek ez joateko esaten zioten. 1970eko urtealdia zen: "Gazteak euskaraz mintzo ziren, ez nuen holakorik zegoela inoiz pentsatu. Hori da nire bidea, nire mundua, pentsatu nuen".

"Antzina, elkartasunean eta elkarrekin bizitzeko harremana lantzen zuten kantuaren bidez, eta hori ari da aldatzen egun"

MADDI OIHENART ETA NIKO ETXART



“Gure familia ez zen abertzalea, euskaraz mintzo ginen etxean, baina ez arrazoi ideologikoengatik. Nik abertzaletasuna 16 urtetan ezagutu nuen, Euskal Etxean, Hegoaldeko errefuxiatuei esker. Jauzi handia izan zen. Soroak taldearen eragina ukan nuen. Soroak-en kantuak ederragoak atzematen nituen Michel Labeguerieren kantuak baino” gogoratu du Etxartek. “Pentsa, nik Labeguerie –segitzen du Oihenartek– anitzez berantago ezagutu nuen, eta Soroak ere bai; Robles familia. Iker eta Ugutz Labeguerie baino lehenago hasi ziren kantuan”.

Ugutz Roblesek kontatzen ohi du, Soroak taldeak kontzertu bat eman zuela Itsasun eta Labegueriek “hori da nik egin nahi dudana kantu moldea” zioela. “Prefosta, Labeguerie politikari eta kultur eragile handia zen orduan, eta kantuaren argizale bilakatu zen”.

Orduantxe, Etxart, 17 urterekin, hasi zen rockaren munduan, Paris-ko 80.000 laguneko auzoan arrakasta bildu zuen, harrokeriarik gabe diosku: “Egia, oso ezaguna nintzen, aita ez zuen maite ene ibilmoldea. Artisten kartierra zen, ene eskolako lagunak gurasoak luthierak, pintoreak edo aktoreak ziren. Frantses kantari izateko xantza eman zidaten, ostiral guztietan txanpaina klikatzen genuen [irriz]. Alabaina Altzürükün hurrupatu nuen egun defendatzen dudana euskal kantagintza tradizionala. 21 urterekin itzuli ginen Zuberoara”.

Oihenart da mintzo: “Ni aldiz oso gutxi ibili naiz kantuz, berant plazaratu nintzen.

Ezkerrean, Jojo Bordagarai. Hemen goian, Maialen Errotabehere. Biak ala biak, Euskal Kantu Txapelketaren bidez eman ziren ezagutzera.

“Gutaz trufatzen ziren, egun, berriz, gure musika 'erosten' dute, errekonozimendu gisakoa da, orduan frustrazio handia zen-eta”

PIER PAUL BERZAITZ

Atharratzeko ostatuan biltzen ginen lagunak, dantzaldietara joaten ginen, soinu zale. Kantuz hasi eta gaua pasatzen genuen inor ikusi gabe. Bi urtez aritu, eta gero etxean geratu nintzen, etxeko lanetan, hamabost urte eman nituen kantuz ari izan gabe”. Oihenarten aburuz, kanta berria sortuko da. Baina herrialde edo eskualde bakoitzak bere nortasuna dauka, eta kantaren berezkotasuna galtzen ari da: “Noski, pertsonak beti kantatuko dute manera batez edo bestez, baina kanpoko kulturen influentzia gero eta azkarragoa da, gero eta handiagoa. Nola atxikiko dugu Zuberoako identitatea?”.

Baxenabarren gaindi

Gabadikoa da (Baxenabarre) Jojo Bordagarai, aita Pagolakoa (Zuberoa) zuen ordea: Alexandre. Arotza zen, ferratzaila. Etxean beti kantuz ari ziren, apairuetan, ezteietan... Lehen agerraldi publikoa 10 urterekin egin zuen Bernadette arre-

barekin. Niko Etxart, Benito Lertxundi, Peio eta Pantxoa... izan zituen begiko: “Labeguerie ez nuen ezagutu, baina haren *Txorieri mintzo zen* kantuak biziki pentsarazi dit betidanik. Kantaria arbol baten gainean, buru xoro ezti bat. Labegueriek euskal kanta modernizatu zuen, gitarrarekin kantuz aritzea iraultza izan zen; frankismo garaia zen. Ni ere Hegoaldera joan izan naiz, baina bekan. ETako kide baten aldeko kantaldian kantatu nuen behin-edo. Guardia Zibila etorri zen. Gure kulturari azkarki atxiki nintzaion harrez gero”.

Bordagaraik garai beltza ezagutu zuen. “Ohartu nintzen Euskal Herriak zapalketa gaitza bizi zuela kulturalki: hizkuntzaren aldetik, lurraren aldetik... Bi estatuek egin diguten ebasketa izugarria sufritu nuen. Hasarretu eta

ene baitan zerratua bizi izan nintzen, frustratua... Euskarari eta kantatzeari esker egin nuen aitzina: *Euskara eta kito*, nioen. Berantago, euskarazko testuak lantzean, kantari frantsesen testuak ere aztertu ditut, eta errebelazioa izan zen. Brassens, Brel, Ferrat edo Renauden testuak izugarriak direla ohartu nintzen. Horrek erakutsi dit kultura guztiek merezi dutela bizi-

tzea, elkarrekin bizi daitezkeela, baina batak bestea zanpatu gabe”. Euskara irakaslea da eta kanta erabili ohi du irakasteko. Ikasleak ez dira gai luzaz mintzatzeko, baina kantuaren abantaila da, antzerkia bezala, gogoz ikasten ahal dutela, lehenik ahoan gozatuz. Bere ustez, hitzak errepikatuz gogo gaizatzen da: “Lehen jendeak gehiago kantatzen zuen osta-

tuetan. Hizkuntzaren erabilera apaldu den ahala kantua tipitu da. Baina kanta ez da sekula hilen, birmoldatzen ari da. Baiona eta Garazi Kantuz ekimenak horren lekuko. Txori guztiek badute kantatzeko ahala, bakoitzak bere maneran. Rockeroek, folk eta rap kantariak, eta abesbatzakoek berena, baina denok badugu leku bat. Gogotik aritzea da gakoa, ezin zaio inori estilo bat inposatu. Bertze belaunaldiak heldu dira eta beste estiloekin interesatzen dira, baina kantua sentitzen baldin badute, kantua tirria, euskaraz bada, euskal kanta izanen da. Peio Ospitalek erran zidan iaz, 80 euskal disko atera zirela Durangoko Azokan, estilo eta joera guztietakoak”.

Baxenabarren gaindi Lapurdira

Anje Duhalde arrangoiztarraren iritziz Labeguerie urrats inportantea izan zen, baina kantagintzaren oinarriak etxean izan dituzte kantariak, herrian alegia: “Ni kantuz inguraturik hezi naiz, aita eta osabei izugarri gustatzen zitzaizkan kantatzea, ez zen apairurik kantan egin gabe. Labeguerie eta ene aita lagunak ziren, eskolan elkarrekin ibilitakoak. Esaten da estilo bat asmatu zuela, baina ez dut uste. Gure kantagintzaren estiloan Brassens, Brel edota Leo Ferrek eragin zuten bereziki, besteak beste”.

Lete, Laboa, Lertxundi... Ez dok Amairuko en aroa zen Maialen Errotabeheren hazpandarra sortu zelarik: “Ni sortu naiz horiek kantuz ari zirelarik. Kantari horiek entzun ditut tipitik, baina nik ez nuen giro hori ezagutu. Niretzat kantu garaikideak ziren jada, alegia, giro normala zen. Anjereren kantuetatik beste estilo bat ere jaso dut, baina euskal estiloa ‘finkatua’ zen jada. Ezpela taldean egin dut kantua ezagutza, koro batean. Etxean bagenuen ere kantatzeko ohitura, ez genuen egunik pasatzen kantuz aritu gabe”.

1970 urtea zen. Burgosko auziaren kariatz manifestazio handiak izan ziren Baionan.



Anje Duhalde, Mixel Ducaurekin batera Errobi taldeko partaidea. Kantari lapurtarrek estilo berria sortu zuten euskal kantagintzaren historian.

“Euskarari eta kantatzeari esker egin nuen aitzina: Euskara eta kito, nioen. Gero euskarazko testuak lantzean, kantari frantsesen testuak ere aztertu ditut, errebelazioa izan zen”

JOJO BORDAGARAI

“Iheslari asko ziren, bizitzeko beste kultura bat zuten, horrek kontzientzia aldaketa ekarri zuen gure artean. Ordurako euskalduna nintzen, baina ez zen arras errotua nire baitan, kontzientzia politikoa batez ere garai hartan hartu nuen” diosku Duhaldek

Daniel Landart ezagutzeko xantza ukan zuten. Landartek bideratu zituen bera eta Mixel Ducau: “Nire belaunaldiak orduan hasi ginen jabetzen Euskadi hitzaz, eta orduan ez zegoen Euskal Herria eta Euskadiren artean kontraesanik”. Behinola Donibane Garaziko Vauban zinean, Etxamendi eta Larralderen ondoren, haiek igo ziren eszenategira. Bateria, gitarra eta baxua zekartzaten: “Izugarrria zen, baina urratsa eman behar zen, Manex

Pagolak lagundu gintuen. Hirugarren kantuan 40 urtetik gorakoak utzi zuten aretoa. ‘Hori ez duk gure musika’ zioten. Gaztea(goa)k geratu ziren, noski”.

Handik bi urtera, Errobiren arrakasta itzela izan zen: “Hitzei musikaren estiloa baldintzatzen dute, edo gure kasuan hala izan zen. Nire musika kontzeptuan ez dira sartzen musika ederra eta hitzak soilik. Biak batera doaz, edo bestela ez dago kanturik”. Solaskideen aburuz, gure kanta bizi liteke euskararik gabe, baina kantaren sorkuntza ez. “Hori bai dagoela zalantzan eta arriskuan”. Ez dute onartzen euskal kanta euskararik gabe, funtsezko kontraesana dela diote, kontraesanez-

ko mundu batean bizi gara, ordea. Hartaz, kantariak egina hal guztia egin behar dute euskara bizirik atxikitzeke. Errotabeheren eleak dira hauek: “Nik nahi nuke Hegoaldera gehiago joan kantatzera, baina gure belaunaldia ez da Anjerena bezala ari, gazteagoekin ez da loturirik atxiki. Gu ez gara joaten, ez bada aurreko belaunaldikoekin batera. Gazteago garenok zailtasunak ditugu Hegoaldera joateko”.

70eko hamarkada izugarria izan zen zentzu askotan, Europan nahiz Euskal Herrian.

Txapelketa Nagusia, lehia eta polemika

Euskal Kantu Txapelketa (EKT) Euskal Herri osoko ekimena da. Lehen ekitaldiak 1970eko hamarkadan izan ziren. Erramun Martikorena orduan “plazaratu” zen, Larzabalen (Baxenabarren). Benito Lertxundik berak ere parte hartu zuen. Eñaut Larralde (zendu berria), Daniel Landart edota Maite Idirin ditugu kudeatzaile izandako batzuk; Niko Etxart eta Anje Duhalde epaimahaikideak izan dira, besteak beste. Jojo Bordagarai, Maddi Oihenart eta Maialen Errotabehera txapelketako “emariak” ditugu halaber.

Euskal Kantuzaleen Elkarrekin Euskal Herri osoko kantazaleak biltzen ditu egun. Marie-Agnès Gorostiaue eta Jone Barneix txapelketaren arduradun nagusiak dira Iparraldean: “Bi saioak bereziak dira: haurren txapelketa bi urtetarik behin egiten da, helduena, berriz, lau urtetarik behin. Aurten, Txapelketa Nagusia ekainaren 16an izanen da, Donostian. Bi sailetan banatuta: kantu tradizionala —edo herrikoia— eta sorkuntza”. Adibiderako: haurren txapelketan 600 haur inguru ari izaten dira.

1985ean Irigoien anaiak, Jojo Bordagarai, Patxi Saiz, Magali Zubillaga edota Maddi Oihenart ezagutarazi ziren. Gorabeherak izan dira bere historian. 1987an Eihelarren izan zen finala. Irigoien anaiek irabazi zuten kanta berri batekin: “Gorka Knörr epaileak gure kantua ezin sailkatua zela erran zigun. Batista Sobiet ene kantu laguna oso haserre atera zen, eta ni ere” diosku Oihenartek. “Eta horregatik arauak aldatu ziren, beti kantu tradizionala gel-

ditzen zen galtzaile, kantu berriari ematen zioten lehentasuna, gitarra lagundurik” dio Etxartek.

Lehiak polemika sortzen du. Irigoien anaiei kantuen laborarien ingurukoak ziren, aldarrikatzaileak, politikoak. Oihenart eta Sobietenak, aldiz, XIII. mendekoak. Kanta zaharra eta modernoa batera epaitzea ez zen bidezkoa, eta aldatu da: “Alta, oraindik ere kantu berritzaileari ematen zaio garrantzi handiagoa” gehitu du Oihenartek.

Errotabeherak hauxe dio: “Ni saritua izanik, astebete-ko ikastaldia egin nuen Izuran. Berrogei bat musikari inguru ginen, kantuen teknika eta musika idazten ikasteko, tauletan trebatzeko. Bururatzean emanaldi bat egin genuen. Horrek interesa eta nahia sortzen dizkizu, artista eta sortzaile izaera garatzeko grina”.

Duhaldek honela ezagutu zuen EKT: “Akelarre taldean aritu ondoren, Larralde deitu zidan. Txapelketa gauza bitxia iruditu zitzaidan, ez nuen ikusten zer ondorio ekar zezakeen. Noski, euskaldunok joko eta lehia maite ditugu, txapelketak. Epaile gisa segitu izan nituen pauso guztiak, kantariak nola prestatzen ziren... Zirrara izugarria sentitu nuen. *A capella* abesten zen nagusiki, laguntza gutxirekin. Oso gauza akustikoak ziren, pianoa ere tarte-ko batzuetan. Txapelketak guraso eta senideen artean ilusio izugarria sortzen zuela ikusi nuen. Hegoaldera zabaldu zen gero. Maialen bera hortik atera da. Lehen urrats bat da, gero musika munduan bide egiteko”.

Diktaduraren ondorengo garaia zen, borroka armatu eta errepresio bortitza. Duhalderena garai mitikoa izan zen, Euskal Herrian gauza asko gertatu zen, sozialki eta politikoki. Estilo bat markatu zuen aroa izan zen: “Gizartearen bestelako sentsibilitatea zegoen ni kantatzen hasi nintzenean. Hegoaldean batzuetan bi ordu aurreratu behar izaten zen kantaldia guardia zibilak etorriko ziren beldur. Horrek publikoaren jarrera aldatzen du, bistan da”. Errotabeherak hartu du hitza. “Hori batetik, eta bestetik, gu sortu gara irati, telebista eta Internetekin. Etxekoen eragina tipiagoa da, guk eragina ukan dugu zuzenki kanpotik, zuek baino azkarrago, estilo askoren influentzia ukan dugu. Guk globalizazioaren eta kultur nahastearen eragin izugarria bizi dugu. Anjeraren garaian gauza berriak egin ziren, baina orain zer egiten da berri? Orain ez da hainbeste sortzen, gauza batzuk, baina gutxi”. Errobi taldeak, adibidez, diskoak eta kaseteak publiko mugatu batentzat egin zituen: “Egun dena dator arrapaladan, orduan ere bai, baina guk ez genuen gaur egungo geruza mediatikoaren eragina bizi.

**“Egun dena dator arrapaladan,
orduan ere bai, baina guk ez
genuen egungo geruza
mediatikoaren eragina bizi (...).
Orduko hedabideen eragina
ez zen egungoen adinakoa”**

**ANJE DUHALDE ETA
MAIALEN ERROTABEHARE**

Orduko hedabideen eragina ez zen egungoen adinakoa” diote bi-biek.

Irratiko esatariak Garazin

Irulegi Irratiko esatariak —Gorostiauek eta Barneixek— seinalatu zituzten bidea, eta ororen buru, euren eleentzat leku eskas geratu zaigu. Solaskide guztiek laudatu dute joan deneko 30 urteetan Euskal Irratiek euskal kanten zabaltzeko egin duten lana, baita Euskal Kantu Txapelketaren garrantzia azpimarratu ere. Kasetari biek Michel Labeguerieren *Gira Euzkadi*ko, Etxamendi eta

Larralderen *Joseba Eloze*gi, Xabier Leteren *Xalbadorren heriotze*an kanten doinuak oroitarazi dizkigute, besteak beste. Imanol Kantuz ekitaldiaren arrakasta ere azpimarratu dute. Eta, oroz gainera, Erramun Martikorena. *Gure lurretik* azken diskoak denbora gantitzen baitu: “*Gure lurretik* tituluak berak dena erraten du. Euskal Herrikoa dela, lurrari atxikia, xumeki. Kantu herrikoia dira, gure bertsoak kantatzen ditu, garai bateko laborantzaren eta harat-honat ibilitako euskaldunen istorioak... bere xokotik”. ■



Yves Sallaberry 'Xala'

«Lehenengo mailan ezinezkoa da pertsona hotz-hotza izatea»

Apendizitisa, atzerapenak eta polemika tarteko, iaz Aimar Olaizolaren kontra final kasik epikoa irabazi zuenetik buruz buruko azken txapelduna da Xala. Hitz egin zalea ez den arren, aurrez aurrekoan gertukoa eta atsegina begitandu zaigu aurrelaria, barrea beti lagun.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Argazkiak: Dani Blanco

Urtebete pasa da eta nola gogoratzen duzu lru-
nen hunkituta eman zenuen prentsaurrekoa,
enpresari eskatzeko zuri zegokizula Buruz
buruko finala jokatzeara?

Ematen du hamar urte pasa direla dagoene-
ko, hori sentitzen dut; pasatu zen eta ez dut
oroitzapen oso garbia. Egia da momentu
intentsua izan zela, baina ene ustez gorputza
eta burua ondo eginak dira aurrera segi eta
une gogorak ahazten uzteko. Beste txapelke-
ta batzuk etortzen dira, berriz ere prestatu
beharra dago... eta gauza berriei heldu behar
zaie.

Gogor mintzatu zinen, enpresaren aldetik umi-
liatua sentitzen zinela eta. Aldatu egin al da
Asperekin duzun harremana, harrez gero?

Ez, ez da aldatu. Momentu horretan hala
sentitu nintzen, umiliatua, baina gero finala
jokatu, irabazi, eta buelta eman nion. Beraien-
tzat pilotari bat gehiago naiz eta lanean segi
behar dut: ongi baldin banago jokatu, eta
bestenaz etxera, hori badakigu pilotariok.
Horrela da gure mundua, kirol mundua.
Fabrikan ez dut lanik egiten baina edozein
enpresaren gisan jokatzeko dutela esango
nuke, nagusiak eta langileak gaude, baina guk
gainera zorte handia dugu, pilotatik bizi gai-
tezkeelako. Gure egitekoa da ongi prestatzea,
gorputza zaintzea eta ahal bada partidu asko
jokatzeara, eta horregatik kobratzen dugu, ongi
gainera.

Azkenean Buruz buruko finala jokatu ahal izan
zenuen eta txapela irabazi. Grina eta amorrua

erakutsi zenituen frontoian, baina esango nuke
bukatu berri den Binakako finalean indar hori
faltatu izan zaizula. Batzuetan faltan botatzen
duzu amorru gehixeagorekin kantxaratzea?

Azkeneko finalean beraiek hobeto jokatu
zuten, nahiko txapelketa irregularra egin
genuen guk eta finalean ere hori sentitu zen,
pilota tonto batzuetan huts egin genuen Las-
kuk eta biok eta partidua joan egin zitzaigun.
Finala beti da zaila jokatzeko, baina egia da
jende askok esan didala inspirazioa faltatu
zitzaidala. Hala ere, zaila da esatea jenio
gehiago behar nuen ala ez, momentu oso
laburra da partidua eta gorputza eta burua ez
dira beti bat etortzen. Norgehiagokan faktore
asko tartekatzen dira gainera eta beti gerta-
tzen da aurreikusi ez duzun zer edo zer. Beti
topera izatea ez da erraza, kirolari guztiek

Nortasun agiria

Yves Sallaberry 'Xala' 1979an jaio zen Lekui-
nen (Lapurdi), eta sarri bertaratzen den arren,
Baionan du bizilekua. Aspeko fitxaren arabera,
pilotari ezkerak 1,80 metroko altuera eta 80
kilo ditu, Eibarko Astelena frontoian debutatu
zuen 2000. urtean eta hiru txapela lortu ditu
maila gorenean: Binakakoan irabazitako bi, eta
Buruz buruko txapelketako bat. Fitxan ez du
jartzen, baina frontoian airezko kolpea du arma
nagusi. "Eroso sentitzen naiz eskuinarekin
boleaz sartzen", dio berak.



dituzte momentu oso-oso onak, nerbioarekin, txisparekin eta gogoekin, eta beste momentu batzuetan ez duzu hainbeste indar sentitzen.

Eta hori lantzen al duzue? Psikologikoki prestatzen al zarete, motibatuta ateratzeko?

Ni duela bospasei urte hasi nintzen hori lantzen eta bizpahiru urtez aritu nintzen, konturatu nintzelako pilota munduan beharrezkoa zela nintzena baino agresiboagoa izatea, inguruko pilotari guztiek agresibitate handiagoarekin jokatzeko zutela eta mundu horretan ikasi nuen agresiboago jokatzeko, bertan jarraitu nahi banuen berdina egin behar nuelako, eta hasieran baino agresiboagoa naiz orain. Partiduak galduz adibidez asko ikasten da: mina ematen du eta esaten diozu zure buruari, “aski da, berriz ere ongi jarri behar dut, berriz ere motibatu eta berriz ere indarra hartu”. Burua eta gorputza, biak doaz elkarrekin, eta nire kasuan, gorputza ongi sentitzen badut, txisparekin eta indartsu, erraz jarraitzen dio buruak, baina entrenamenduetan ikusten baduzu pilota kostata mugitzen duzula, indarririk gabe... hor egin behar du buruak lan gehien, apalaldi fisikoak ez diezaun burua jan. Azken txapelketan adibidez ez naiz topera egon, baina ene ustez buruarekin eutsi diot eta finalera ailegatzea lortu dugu azkenean.

Pilotari hotzaren fama duzu. Horrela ikusten duzu zure burua?

Pertsona normalizat dut nire burua, galduz gero mina sentitzen dut, eta irabaziz gero poza. Lehenengo mailan hainbeste denboran mantentzeko, ene ustez ezinezkoa da pertsona hotz-hotza izatea, beharrezkoa da jenio pixka bat, nahiz eta bai, jendeak kanpotik hala ikusten nauen sarri. Jendeak ere ikusten du jenio gehiago duten pilotariak daudela, edo imintzio gehiago egiten dituztenak, baina barrutik nik ez dut hotz ikusten nire burua.

Bizkaia frontoia

“Lehen aldiz frontoi horretan sartu nintzenean handia egin zitzaidan, hotza, baina pixkanaka-pixkanaka oso polita harrapatu dut frontoia, jokatzeko ona. Partidu inportanteak izan ohi dira, jende asko etortzen da eta giroa sortzeko aproposa da. Ikaragarria. Bilbokoaz gain, gustukoa dut Iruñekoak, baina agian politena Eibarkoak da, nahiko txikia, osoa, jokatzeko ona”.

Baionan bizi zara, baina Lekuenera joaten zara maiz. Lasaitasuna maite duzu?

Bai, aita eta ama Lekuenera dira, oso herri txiki eta lasaia da eta gustuko dut gogor entrenatu ostean Lekuenera mendira joatea bakarrik, edo arrantzara. Bakardadea maite dudalako, eta natura; ongi sentitzen naiz hor, mendian, zuhaitz artean, erreka ondoan, baita itsasoan ere, surfa egiten adibidez, eta horretarako inguru aproposa daukagu. Nik hori dut motibazioa bizitzan, pilotaz gain. Indarberritzeko, gogoberritzeko balio dit, entrenamenduetatik eta estresetik askatzeko, nolabait.

Frontoian aldiz, bakarka baino txapel gehiago lortu dituzu bikotean. Nahiago duzu bikoteki-dearekin jokatu?

Bakarka jokatzeko maite dut, baina behar da topera egon, fisikoki batez ere. Gogorragoa da, baina fisikoki oso ongi egonez gero eta inspiratuta joanez gero, ikaragarria da buruz burukoa. Ongi jokatu baduzu, poz handia hartzen duzu. Bikoteka ezberdina da, taktikari begiratu behar diozu, atzelariarekin ondo konpontzeari. Irabaziz gero, nahiago dut bakarka, eta galduz gero, bikotekarekin, horrela beti esan dezakezu ez dela zure errua, kar, kar, kar.

Ezkerra izateak nola eragiten dizu kantxan?

Abantaila batzuk baditugu ezkerrok, baina eskuinarekin lan asko egin beharra daukagu, batez ere zabalean defendatzeko, zaila delako ongi kokatzeko eta pilota kentzea. Ezkerparetan jokatzeko, aukera banu nahiago nuke eskuina izan. Agian egun batean egingo dute eskuin-pareta, ez? Lekuz aldatu, kar, kar, kar, eta orduan beste gauza bat izango da...

Euskal Kultur Erakundeak bultzatuta, Hego Euskal Herriko gazteei bestelako Iparralde bat badela erakustea helburu duen *Iparralde XXI*

ESKOLA TXIKIEN FESTAK 25 URTE



Ekainak 3, Larraulen

Puzgarriak - Pirritx eta Porrotx - Zezenak eta Pottokak -
Kupela taldea -tailerrak - Eskola Txikien dokumentala -
erakusketa ... *zatozte ospatzera !!!*

dokumentalean hartu zenuen parte 2010ean, kazetari eta aurkezle lanetan. Zer moduzko esperientzia izan zen?

Normalean ezetz esaten diet halakoei, ez dut asko maite hitz egitea, baina lagun batek eskatu zidalako egin nuen. Esperientzia oso ona izan zen eta momentu oso onak pasatu genituen. Adibidez, Baionan bizi arren ez nuen ezagutzen bertako kaleetan dantzariak egun jakinetan egiten dituzten ekitaldiak.

Iparralde oso txikia da, konparazioz Hegoaldea oso handia, herri handiagoeekin, eta Hegoaldeko jendea sarri leku txikiago eta lasaia goen bila etortzen da gurera, esango nuke. Nik sentitzen dut leku sanoa dela hau, aire garbia dugula, eta paisaia ederrak, hondartzekin, mendiekin... Bizitzeko leku sanoa.

Heldua zinela ikasi zenuen euskaraz. Pilotagatik?

Txikitik banekien, aita eta amak egiten dute, baina eskolan aiantzi nuen, nahiz eta ulertu beti ulertu dudak, baina Iparraldeko euskara, eta hitz egin gutxi egiten nuen. Pilota munduan sartu nintzenean, euskaraz kostata hitz egiten nuen, AEKn bi-hiru hilabete aritu nintzen eta gero frontoian ikasi dut euskaraz, masajistarekin, pilotariekin... Hegoaldean pilotan jokatzen hasi ez banintz, agian ahaztua izango nukeen, edo bakarrik ulertu egingo nuen, baina hitz egin ez. Esan daiteke Hegoaldean ikasi dudala pilotan eta euskaraz hitz egiten. Azken finean, euskarak pilota munduan hobeto moldatzeko balio izan dit: aldagelatan hasten zara hitz egiten, harremanak egiten dituzu... Oskar Lasarekin oso harreman ona egin nuen adibidez, Laskurekin, Zubietarekin... eta jende askorekin. Haiekin ikasi dut euskaraz, baina baita zurekin ere, elkarriketarekin hau egiteko lanean dudalako burua, ez pentsa, behar dut kontzentratu hitz egiteko. Beti ikasten dut.

Trinket mundutik egin zenuen jauzi frontoietera, Panpi Ladutxen laguntzarekin.

Bai, 20 urterekin gogo handia duzu eta aita eta ama akort ziren entseatzeko, ez nuen lanik egiten eta nire indarrak horretara jarri nituen, dena behar nuen eman, topera. Panpiren konfiantza izan nuen eta asko entrenatu nintzen berarekin, urte eta erdi biok bakarrik, frontoietakoa pilota ezagutzeko, efektuak, nola kokatu... Panpi maisua da: nola jokatu erakusteko, badaki zer egin behar den eta badaki nola erakutsi zuri hori egiten, eta denek ez dakite hori. Trinketeko jokalaririk izanik asko behar nuen ikasi frontoira aldatzeko eta berak erakusten zidan, adibidez, kakov nola sartu eskua, bizkarra nola jarri, pilota

“Gustuko dut Lekuinen mendira joatea bakarrik, edo arrantzara. Bakardadea maite dudalako, eta natura, mendian, zuhaitz artean, erreka ondoan. Nik hori dut motibazioa bizitzan, pilotaz gain”.



non hartu zehazki... esaten zuelako zentimetro bakarreko aldearekin jokoa irabazi edo galdu dezakezula, eta kakoz ondo sartzen jakitea ezinbestekoa da frontoian. Txikitatik ezker-paretan hasiz gero hamar-hamabost urte dituzu kakoz sartzen ikasteko, baina ni bezala hogeitaka urterekin hasiz gero, behar duzu oso maisu ona, zehazki esango dizuna nola egin, hamar urteko lana urtebetean egiten ikasteko.

Sakrifizio handia izango zen...

Pilotan entrenatuz ez dut inoiz sakrifizioa sentitu, gogor entrenatzen zara baina gustura ari zara, jokoa hobetzeko lanean. Sakrifizioa nik ulertzen dut zure gaindi dagoen zerbait gisa, espiritualagoa-edo, fisikoa baino. Errekan amuarraina ikusi eta joaten uztea, hori agian bai!

Asko bizi duzu arrantza...

Bai, bai. Baditut bi-hiru lagun gustuko dutenak eta elkarri burua berotzen diogu, limiterik ez dugu arrantzan.

Eskuetan zuk ez duzu izan beste batzuek adina arazo, baina partiduko asko jokatzen dituzue, gogorak, txapelketa luzeak... Nola eragiten dizue horrek guztiak?

Duela hiru bat urte hasi nintzen tako gehiagorekin entrenatzen eta ordutik ez dut eskuko minik izan, sentitzen dut entrenatzen gozatu egiten dudala eta partiduetarako fresko ditudala eskuak, baina eskuetatik ongi ibili arren, belaunean, sorbaldan, gerri partean... sufritzen dut, bai, partiduko asko jokatuz gero. Hiru txapelketa egiten ditut urtean eta zaila da hiruetarako gorputza preparatzea; Binakakoa luzea izan da orain, gero Buruz burukorako indarra berreskuratu behar duzu berriz, uda dator gero, eta segituan Lau T'erdikoa. Des-kantsu gutxi. Lehenengo fasean galduz gero daukazu deskantsatzeko aukera, baina azkeneko urteetan kasik txapelketa guztietan nahiko urrutira ailegatu naiz eta denbora gutxi duzu errekuaratzeko eta buelta emateko. Hala ere, hobe da finalera iristea.



AZKEN HITZA

Txapela

"Garaipena gogoratzen dudanean orotzape pozgarriak ditut, baina txapelketak herrenkadan etortzen dira bata bestearen atzetik eta ez duzu denbora askorik horretan pentsatzeko, azkar igarotzen da dena. Pilotatik kanpo, bestalde, beste bizimodu bat dut, eta hor ez diot denbora gehiegi eskaintzen txapelean pentsatzeari. Gainera hemen baldin banago adibidez, Miarritzen edo Angelun, jendeak askotan ez du pilota ezagutu ere egiten eta agian hobeto da, hemen biziz gero erraz ahazten duzu pilota, eta ondorioz baita txapela ere".

"Agian egun batean egingo dute eskuin-pareta, ez? Lekuz aldatu, kar, kar, kar, orduan beste gauza bat izango da..."

Piloten aferarekin zabiltzate beti bueltaka, biziegiak ote diren, estandarizatu eta irizpide mugatuak jartzea komeni den ala mugarik gabe aukeraketa libre utzi...

Zaila da kontua, frontoiak oso diferenteak direlako eta hortik abiatuta, baita pilotak ere, frontoi batean edo bestean jokatzearen arabera. Adibidez, jokatuz gero beti Bilbon, ahalko litzateke pilota bat egin frontoi horretarako, muga batzuen barruan, baina aldi berean, pilota jakin bat baino ez baduzu uzten, abantaila ematen ariko zara ezaugarri batzuk dituen pilotariari, zaila da neurria non jarri asmatzea. Hainbeste frontoi daude, hainbeste lur ezberdin, frontis... Faktore asko dira kontuan hartu beharrekoak. Hezetasuna, jendea, beroa... Horrek denak eragiten du pilota aukeratzeko garaian. Hala ere, lehen baino hobeto ikusten dut orain pilota, ez dira hain bizi eta hain baxu, neurria hartuagoa ikusten diet eta zentzu horretan uste dut lan ona egiten ari direla enpresak.

Aspe eta Asegarceren esku dago maila profesionala. Ados zaude kirol eredu honekin ala irekiago izan behar lukeela uste duzu?

Zaila da, diru kontuak daude atzean, betikoa da. Pilotarion kontratuak enpresa horien esku daude, eta beste enpresa batzuk tartean sartzeak ez dakit ba zein eragin izango lukeen, oraingoz esango nuke ongi moldatzen garela horrela.

33 urte beteko dituzu aurten. Zer eman dizu adinak?

Pilotari bezala oso edade ona da, ongi sentitzen naiz, fisikoki indartsu, ez naiz lehen bezala nekatzen eta fuerte nago, korrika egiteko, frontoian aritzeko; gainera esperientzia duzu eta abantaila ematen dizu horrek. Eta frontoietatik kanpo, urte asko bizitzea espero dut eta beraz zahartzaroan esango dut zein urte izan diren onenak, baina egia da orain gustura nagoela, pilotan gustura egozteak ere eragiten du bizitzan gustura egoteko. Ongi doakit, bai. ■



Begiek zenbat hizkuntza dakizkiten! Begirada artean euren ama hizkuntza erabiltzen dute, gorputz adarrekin kreol hizkuntzaren bat darabilte, hizkien arteko elkartzeko eta nahasketa kopuru itzela modu jakinean argitzeko gai dira, argien eta ilunen elkarriketak ere ulertu ditzakete... Letrekin beste mundu eta egoerak irudika ditzagun laguntzen gaituzte eta irudiak irakurtzeko gai ere badira...

Hizkuntza horietako bi oinarri hartuta, irudiena eta hizkiak, ArgiHizkiak lehiaketa antolatu dugu Getxon. Grezierako *photos* (argia) eta *graphis* (marrazki, idazkera) hitz elkarriketak legeez, 'argazki' berbak ere oinarri berdintsuak ditu bere osakeran. Hala, 'fotografia' edo 'argazki' berbak "argiarekin marraztea edo idaztea" dute jatorrizko esangura. Horrenbestez, zuen begiradeak argien eta hizkien hizkuntzekin jolastea da proposatzen dizueguna. ArgiHizkiak Getxon lehenengo aldiz antolatzen den euskarazko literatura-lehiaketa da; eta proposatzen diren argazkietan oinarriturik egon beharko dute horretara aurkeztuko diren testu laburrek. Garuna lagun, argitu begiak eta ipin egiozuz horri hizkiak!



ARGIHIZKIAK

Argazkietan oinarritutako I. TESTU LABURREN LEHIAKETA

Zeintzuk dira lehiaketaren ezaugarriak?

16 urtetik gorako edonork har dezake parte, Getxon errolatuta egon ala ez.

Testu bakoitza argazkietako batean egongo da oinarrituta, testua zein argazkiri dagokion adierazi beharko du egileak (argazkiaren edo argazkilaria izenak idatziz).

Bi kategoria izango ditu lehiaketak: **sms bidezkoa** (160 karaktere gehienez) eta **posta elektronikoko bidezkoa** (100 hitz gehienez).

Testuek euskaraz idatzita egon behar dute, euskara batuan edo euskalkietan.

Edozein testu mota onartuko da (prosa, olerkia, bertsoa e.a.).

Testuak aurkezteko epea: **maiatzaren 1etik 31ra bitartean**.

Argazkiak ikusteko, baldintzak eta oinarriak ezagutzeko?

www.egizu.org/literatuta/argi-hizkiak

argi.hizkiak@gmail.com • 619 935 541



• Trapagarango Itxaropena ikastola •

Goazen lagunok!

Ekuadorreko Yaruquies-Riobamba herriko ikasleei laguntzeko Goazen lagunok! Gobernu Kanpoko Erakundea sortu dute Trapagarango ikastolako ikasleek. Herritartasuna irakasgaiaren bitartez, GKE baten funtzionamendua ezagutzeko aukera izan dute aurtengo Ibilaldia antolatu duen ikastolan.

ALEJANDRA GOIKOETXEA



BEGONA MARTINEZEK UTZIA

Ibilaldiaren ekitaldiarekin batera ospatu dute Kirol Eguneko baloiaren zozketa. Ikasleak goizetik txosnan edariak, pintxoak eta zozketako txartelak saltzen aritu dira.

ASTE SANTU ostean hurbildu gara ikastolara; aztoratuta bueltatu dira ikasleak oporretatik. Maiatzaren 19a gertu dute, eta ardurata daude prestatzen ari diren Kirol Egunerako dena prest izango ote duten. Azken ekitaldi horretan, ikasturte guztian zehar egindako lanaren fruituak bilduko dituzte.

Minutu bakar bat galdu barik, egitaraua arbelean jarri eta lanak banatzeari ekin diote. Zozketatuko duten Athleticen baloia ofizia-

la izango den ala ez eztabaidatu, zozketako txartel kopurua, prezioa eta diseinua zehaztu, txosnako edarien eskaria egin, partiduak jokatuko dituzten futbol eta eskubalo taldeen entrenatzaileekin hitz egin, eta helarazi beharreko gonbidapenak prestatu. Zereginen zerrenda luzea den arren, badakite beraien ahaleginak merezitako saria izango duela, izan ere, lortutako dirua Yaruquies-Riobambako (Ekuador) ikasleen premiak asetzeko erabiliko dute.

Goazen lagunok! izenez bataiatu du DBH2ko ikasle talde honek (13-14 urte) sortu eta kudeatu duen GKEa. “Esperientzia positiboa izan da, liburuan ikusten genuena praktikan lantzen ari gara eta modu horretan, irakasgaia ez da hain aspergarria” dio Iraiak, ikasleetako batek. “Besteentzat zerbait egiten ari garela jakiteak gogo gehiagorekin lan egitera bultzatu gaitu” gaineratu du Erikak. Lehenengoz, herritartasuna lantzeko testu-liburuak albo batera laga eta praktikaren bitartez landu dituzte kontzeptuak. “Denetarik ikasteko aukera eskaintzen du proiektu honek, elkarlana edota lankidetzak kontzeptuak ezagutzen dituzte, beraien kabuz gauzak antolatzen ikasten dute eta horrez gain, geografia birpatsatzeko aukera ere izan dute”, azaldu du Begoña Martinez irakasleak.

Ikasturte hasieran, ekintzaileak formatzea helburu duen Asturiasko (Espainia) Valnalon fundazioaren proposamena aztertu zuten ikastolako arduradunek, eta herritartasuna beste modu batera lantzearen aldeko apustua egin zuten; pozik daude esperientzia berriarekin. Hasieran, gogotsu baina beldur apur

Proiektuaren xedea GKE baten funtzionamendua ezagutzea da, GKE baten eraketa simulatuz. Horrez gain, garrantzi berezia eman diote ekintzaile hitzaren esanahia barneratzeari

batekin hartu zutela aitortu digu Martinezek: “Zuzendariak Valnalonon lehenengo bilerara joatea proposatu zidan. Animatuta atera nintzen handik eta liburuak albo batera uzteko alternatiba egokia iruditu zitzaidan”. Lan handia izan zela gaineratu du, “jarraibide batzuetan oinarrituta antolatu behar izan dugulako dena eta gainera, jasotako materiala euskaratzen ere lan handia hartu dugu”.

Fundazioarekin egindako bilkuraren hurrengo egunetan, proiektuarekin aurrera jarraitu ala ez erabaki orduko planteamendua ikasleen aurrean aurkeztu zuten. “Erabakiak hartu behar izan diren aldiroikasleek hartu dute azken hitza; proiektua beraiena da, ni dinamizatzailerak baino ez naiz” adierazi du irakasleak.

Ikasleek proiektuaren nondik norakoen berri jaso ostean, aho batez proiektuan murgiltzea erabaki eta minuturik galdu gabe lanari ekin zioten. “GKE bat sortu behar dugula entzun eta dirua biltzeko ekintzetan pentsatzen hasi ziren ikasleak, baina hori baino lehenago beste gauza asko egin beharra dago” aipatu du Martinezek. Hala, beraien Gobernu Kanpoko Erakundeak izango

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologiako MASTERRA 2012/2013

Euskal Herriko Unibertsitatea / Gasteizko Letren Fakultatea



Ikerketa masterra doktoretzarako aukerarekin, 3 ikerlerro hautatuz 5etik:

- Hizkuntzalaritza aplikatua
- Euskal literatura
- Euskal gramatika
- Euskararen (aurre)historia
- Euskalkiak

Eskolak urritik abendura arte eta otsailetik martxora arte; 60 kredituak urte betean edo bitan egin daitezke; urte betean eginez, goiz eta arratsalde (10:30-13:30 eta 16:00-19:00); bi urtean eginez, goizetan ala arratsaldeetan baizik ez.

Argibide akademikoak: Xabier Artiagoitia (945 013 150)

xabier.artiagoitia@ehu.es

Argibide administratiboak: Guille Ibeas (945 013 410)

guillermo.ibeas@ehu.es

Aurrematrikulazioa maiatzaren 31 arte



UPV EHU

Bi ordenagailu Riobamba Yaruquieserako

Batxilergoko lehenengo mailako ikasleak dira eta mekanika eta sukaldaritza ikasten ari dira. Ekuadorko hiriburuaren erdigunetik urruti bizi dira eta hori beraien bizi kalitatean nabarmentzen da. Informatika-ko gelan behar egiten duten aldiro, bosteko taldeetan lan egin behar dute eta hori beraien ikasketa prozesuan traba handia dela aipatu dute Riobamba Yaruquieseko ikasleek. "Informatika laborategiko ordenagailu kopurua bostera igo nahi genuke, horrela, ordenagailu bana izango dugu" aipatu dute ikasleek. Ekuadorko irakasleak ere ez dira besoak gurutzatuta gelditu eta ikasteko dituzten baldintzak hobetzeko asmoz, modu aktiboan hartzen ari dira parte Trapagarango ikastolarekin eratutako lankidetzan. "Gure biztanleen diru ahalmenari egokitutako kostu baxuko artikuluak saltzeko taberna ibiltariaren bitartez, aldizkako zozketak eginez eta elizaren merkatuan kafea salduz dirua biltzea pentsatu dugu", diote proiektuaz egin duten txostenean.

Bi ikastetxeen artean ezberdintasun gutxi daude. Euskal Herrian eta Ekuadorren gurasoen laguntza izango dute taberna ibiltarian eta barikuetako pintxo solidarioen ekimenean. Hemengoek patata tortillak salduko dituzte, eta hangoek aldiz, "papak eta esnezko manjara". Biek ere, helburu berak elkartuta.



dituen misioa, ikuspegia eta baloreak zehaztu zituzten lehenik. Ondoren, erakundearen izena eta logoa definitu eta zuzendaritza taldea eratu zuten. "GKE bat sortzeko urrats guztiak errespetatu ditugu, benetako GKEa izango bagina legez".

Ekintzaile izatearen beharrezan

Valnalon fundazioak proposatutako proiektuaren xedea GKE baten funtzionamendua

ALEJANDRA GOIKOETXEA



"Erabakiak hartu behar izan diren aldiro ikasleek hartu dute azken hitza; proiektua beraiena da, ni dinamizatzailea baino ez naiz", azaldu digu Begoña Martinez irakasleak.

ezagutzea da, horretarako GKE baten eraketa simulatuz. Horrez gain, garrantzi berezia ematen diote ekintzaile hitzaren esanahia barneratzeari. Proiektuaren jatorriak hitz horrekin zerikusi handia dauka. Asturiasko Nalon eskualdera siderurgiaren krisia iritsi zenean, ekintzaile hitzak zuen garrantziaz ohartu eta ikastetxeetan izaera hori transmititzeko beharraz gogoetatu zuten. "Nalon eskualdeak Trapagaranen ezaugarri oso antzekoak ditu eta horretaz jabeturik, guk ere uste dugu garrantzitsua dela hurrengo belaunaldiei erakustea beraien kabuz bizimodua aurrera ateratzen. Hemen ere, ikasleek ekintzaile izaera garatu behar dute eta hori gure ardura da" gaineratu du Begoña Martinezek.

Azkenik ere, joan den larunbatean ospatu zuten Kirol Eguna –txosnak eta baloien zozketa; futbol eta eskubaloï partidak ekainaren 16an egingo baitituzte– eta irakaslea pozik azaldu da lortutako emaitzarekin eta ikasleak emozioz beteta lanean ikustea aberasgarria izan dela esan du. Horri eta ostiralero ikastetxean saldutako pintxo solidarioen ekimenari buruzko balorazioa patxada handiagoz egingo dute orain, helburuen inguruko hausnarketaz eta balantze ekonomikoaz gain. Dena espero bezain ondo ateratzen bada, Ekuadorko Riobamba Yaruquieseko ikastetxean bi ordenagailu gehiago izango dituzte. Trapagaranen aldiz, beste errealitate bat ezagutu eta berau iraultzeko bitartekoak jartzen ikasi ahal izan dute. ■





Basagoiti, madrildarra; Barcina, Burgoskoa;
Martín, Beltrán, Pérez: Castilla, Aragón eta
Andaluzia (PPnko zuzendaritza berria)
Adanero, Talavera (UPNko idazkaria);
Alliot-Marie, Marneko...

ATZERRITARREN ARTATZE UNIBERTSALAREN
KONTRAKOAK, ATZERRITARRAK IZANKI ...



PRIBATUAN
EZ AL DITUZTE
KOPETAKO
AZALAK
OPERATZEN ... ?

Joxe Mari Anzumendi

HIK HASIKO KOORDINATZAILEA

Hik Hasik Hazi Hezi

S

ortu da *Hazi Hezi*, etxekoentzako heziketa aldizkaria. Etxea era zaba-lean ulertuta, komunitate osoa har- tzen duela: gurasoak, aitona-amo- nak, izebak, osabak, zaintzaileak...

Duela hamazazpi urte, haurraren eta gaz- tearen heziketan lagun zezakeen tresna bat sortu zuen irakasle talde batek: *Hik Hasi* aldiz- karia. Baina, irakasleen premia hori asetzen hastean, agerian gelditu ziren etxeko heziketa- ren premiak: etxeko heziketak eskolakoarekin batera joan behar zuela, eskolako heziketak etxekoa osatu behar zuela, biek norabide berean joan behar zutela... Horretarako, etxera- ko beste tresna bat sortu behar zela ikusi zen.

Urte horietan guztietan, hemengo eta kan- poko hainbat ikerketek eta errealitateek zera erakutsi digute: etxea eta eskola elkarrekin ari direnean emaitzak askoz ere hobeak direla, arlo guztietan. Izan ere, eskola eta familia hel- buru bera duten bi instituzio dira. Haurraren edo gaztearen garapen integrala da bien hel- burua: garapen fisikoa, kognitiboa, psikikoa, emozionala, soziala... Azken finean, haurra eta gaztea ongi sentitzea, bai beren buruarekin eta bai jendartean, hau da, zoriontsu izatea.

Aldaketa handiak izan ditugu denbora gutxian, arlo guztietan, bizitzeko abiadan batez ere. Horrek, aldaketa handiak ekarri diz- kiete jendartea eta familia ulertzeko moduari, harremanei, irakasteko erari... Horregatik,



DANI BLANCO



Jada, ez da nahikoa
jendea ikasketetan
prestatua eta
zintzoa izatea,
pertsona
arduratsuak behar
dira. Eta hori,
etxetik hasten da



eredu berriak behar dira, eta jende sortzailea eta aldaketaren aurrean irizpideak, iritzi pro- pioak izango dituen, kontzientziaren ara- bera jokatu duen... Jada, ez da nahikoa jendea ikasketetan prestatua eta zintzoa izate- a, pertsona arduratsuak behar dira. Eta hori, etxetik hasten da.

Haurraren garapenaz eta heziketaz gero eta gehiago arduratzen dira gurasoak. Gero eta galdera gehiago dituzte haurraren hezi- ketaz. Baina, Interneten, liburuetan, komuni- kabideetan eta kalean inoiz baino informazio gehiago dagoen honetan, premiazko ikusten da iturri fidagarri eta kalitatezkoak zein diren identifikatzen laguntzea. Izan ere, oinarritzko- ak diren jarraibide batzuk azaldu behar dira, hankak ondo finkatzen laguntzeko, norberari segurtasuna emateko eta gauzak ondo egiten ari garela ikusten laguntzeko.

Euskal jendartea hobetu nahi bada, ona litzateke munduko ekarpenei gure betaurreko- ekin begiratzea, eta egokia den hura, gurera ekartzea. Baina, oinarritzkoago litzateke gure hausnarketa propioari eta zintzoari kasu egitea.

Euskarazko hedabideen sarea handitzera dator *Hazi Hezi* aldizkari berria eta elkarla- nean arituko da, denon artean euskal komunitatea sendotzeko asmoz. Hasteko, *Irrien Lagunak* eta *guraso.com* taldeekin elkarla- nean jaio da. ■



TXANDAN

Castillo Suarez



Gaixotu eta berehala aitortu zidan nazka ematen zio- tela ingurukoek etengabe bidaltzen zizkieten mezu baikorrek. Izan ere, behin eta berriz errepikatzen zioten –asmorik onena- rekin, hori seguru– minbiziari aurre egiteko fun- tsezkoa zela aldarte ona eta jarrera positiboa era- kusteak. Aitortu zidan pentsatu ere egin zuela bere erruz gaixotu izana. Ez ziola etsitzen uzten bere buruari, eskubiderik edukiko ez balu bezala hasere eta goibel egoteko. Lagunek esaten zioten ez zela sendatuko bere jokabidea aldekoa ez bazen.

Pentsamendu positiboa

Etia krudela da esatea norberak nahi duen guztia eskura dezakeela jarrera aldatuta, baina tankera horretako mezuak nonahi eta noiznahi entzuten ditugu, pentsamendu positiboaren morroiak bai- kara. Liburu dendetako erakusleihoak autolagun- tza liburuz beteta daude. Bitartean ez diegu erre- paratzen gizartean dauden desberdintasunei, eta, beraz, ez dugu ezer egiten gizartean dauden injustiziak desagerrarazteko. Izan ere, pentsamendu positiboa da gizarteko desberdintasunak justifika- tzeko modu bat. ■



Oier Araolaza

DANTZARIA

Hiru hilabete bakarrik izango dira

Laurogei urtetik gora dituzte, baina badakite ez diotela inoiz ume izateari utziko. Kartoizko hexagono bat jarri zieten paparrean zenbaki batekin eta destinoarekin: *Expedición a Inglaterra*. 1937ko maiatzaren 21 malapartatu hartan haurtzaroa izoztu zitzaizen; betiko ume, gerrako ume bihurtu ziren.

800 bidaiari hartzeko prestatuta zegoen itsasontzian 4.000 lagun sartu zituzten. 3.840 ume, 80 andereño, 120 laguntzaile, 15 apaiz eta 2 sendagile. Itsasoa oldartu zitzaizen Bizkaiko Golkoan, eta zorabiatuta botaka hasi ziren umeak. Lurrean kiribildu, begiak itxi eta negar-zotinka pasa zuten gaua. Tarteka txistulariak jartzen zituen dantzan, kantuan egiten zuten eta Santurtzikoko portuan amarengandik entzundako hitzak errepikatzen zituzten beren kolkorako: “Hiru hilabete bakarrik izango dira, hiru hilabete bakarrik izango dira”.

Sei hilabete pasa eta itzuli zen lehen multzoa. Bi urteren buruan etxean ziren asko, baina 400 ume Ingalaterran segitu zuten. Gurasoak hilda batzuk, kartzelan besteak, non jakin ez zenbaitek... ez zeukaten nora itzuli



DANI BLANCO

beranduago, 25 inguru bizi dira, horietako batzuk ezagutu ditugu Southampton-en, Habana barkuak porturatu zituen hiri berean.

Mikrofono aurrean galderei erantzuteaz gogaituta antzeman ditugu, baina kamerak itzaltzean inoiz kontatu gabekoak kontatzeko prest, irribarre bihurriarekin batzuetan, emozioz totelka bestetan. Harrigarria bada ere, seme-alaba eta biloba askok ez dute oraintsu arte jakin gurasoak gerrako umeak zituztenik. The Basque Children UK'37 elkarte 2002an sortu zen. Ordura arte, 65 urtez, ezkutuan gorde zuten beren jatorrizko bekatua: gerrako umeak izatea.

Seme-alabak eta bilobak besotik lagunduta etorri dira. Kartoizko hexagonoa eta beren zenbakia daramate paparrean orain ere. Txistularia zortziko bat jotzen hasi da eta piztu egin dira haien aurpegiak. Dantzan hasi eta gure onena eman dugu, barruak hustu ditugu. Besarkatu gaituzte eskerrak emanez. Ez dago asko esateko. Dantzan adierazi diegu guk esan nahi geniena. Begiekin erantzun digute beraiek. 75 urtetan zehar zenbat aldiz errepikatuko zizkieten beren kolkoari amak Santurtzikoko portuan esandako hitzak. Hiru hilabete bakarrik izango dira. ■



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Ezagutu nuen bigarrena, Etxa-mendirekin batera afari batean. Berrogei bat urte joan dira, ez alferrik. Ordura arte Eñaut Bidegorri zen niretzat lehena “eztzian aberatsa

eztzian pobrea, bainan haren bihotza zer urrezko kaliza” kantuz ikasia, gure haurtzaro gazteleratuarentzat aurkikuntza. Gogoan ditudan kantaldi andanatik at, Donostian diskoak grabatzen ari zirelarik izandako harreman estua bereziko nuke, *Ariana ene arreba* kantua prestatzen ari zireneko hura. Haien antzera ni ere mutikotan elizako koralean hazia, armonian hasi nintzaizen uzkur, herabe laguntzen, kantuaeren bukaera aldera

Eñaut Larralde

azkarki beroturik ahotsa askatuz bukatu genuena. “Errak” esan zidan, gurekin ari beharko hukek. Ez zen nire asmoa gure arteko josteta hura edonorekin konpartitzea, bere hartan utzi genuen. Bere herrian, Izuran guk emaniko kantaldiaren ondoren kantatu genuen azkenekoz elkarren ondoan, ostatuan baso bat makulu, taloren bat estakuru. Maite nuen bere metal ahotsa, tripa leize sakona balu bezala atera eta afinazio zuzenez belarrirratzen zuena, hartzen zuen plazera begiz adierazita, emari ugarian. Kantuaren militanteak, kantua bilakatu zuen borroka gailu, bere bikotekide Eñaut arsenal. ■



BERTSO BERRIAK

Julio Soto

Amunari



XDZ

I

Iruritarra zinen jaiotzez,
familiar jateko lain.
Kristobalekin ezkondu zinen
Gorritiraino gainez-gain.
Hamalau seme-alaben ama
etxekoandre, umezain.
Bizi laurogeita hamabost urtez
begiak itxita orain.
Beti irrifar bat ezpainetan
Agapita Barasoain.

III

Beti xahartuta ikusi zaitut,
beti aurpegi ximela.
Beti soineko ilun batekin
mantal azpian sabela.
Tokilla more bat bizkarrean,
atzo, gaur, bihar bezela.
Jakín nekien lur honetatik
denak joaten ginela.
Baina batzutan sinesten nuen
zu betirako zinela.

V

Heriotza da beti heriotz
bere malko, bere minen.
Baina honek zer kendu didan ez
nuke esaten jakinen.
Bizitza ez zait aurrera lehen
bezalakoa eginen.
Amuna eta biloba baino
zerbait gehiago baikinen.
Zuk “seme” deitzen ninduzun eta
zu niretzat ama zinen.

II

Etzetik irten aurretik beti
kezkatan, pentsamentuan.
“Julio arroltze bat nahi al duzu?
Inñen datzut momentuan”.
“Ezetz amuna” (etsitzen zuen
hirugarren intentuan).
“Ta pañueloa hartu al duzu?
Tori, eraman eskuan”.
Nonbait bi bihotz zenituen guk
bakarra dugun lekuan.

IV

Begiak biltzen nituen zure
aldameneko ohatzean.
Esnatzen zinen bi-hiru aldiz,
nik buelta erdi ohatzean.
Komunera joan eta etorri,
nigana gerturatzean.
Leihoa ireki, gaua usaindu,
lanpara argiz atzean.
Orain arnasa falta zait zure
ohatzera begiratzean.

VI

Pazko, udara, urtezahar-berri,
igandeetako aintza.
Jendez betetzen zen sukaldea
mahai inguruko zaintza.
Kafesnea ta galletak zure
bisitaroko eskaintza.
Familiako enborra zinen
maitakorra, berdingaitza.
Orain jakingo al dugu nola
mantendu zutik zuhaitza.



DOINUA: Lurraren pean sar nindaiteke.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Literatura

Berrinventarium

Nostalgia kutsua hartzen ahal diozu duela 25 urteko ikuskizun bat berriz eskaintzeari, baina askok hartu dute pozez *Henry Bengoa Inventarium* maiatzaren 31n Hendaiaiko Varietés antzokian berriz ikusteko aukera. Efemerideak aitzakia paregabea ematen du Bernardo Atxagak, Jimu Iturraldek eta Ruper Ordorikak sortutako artefaktua zaharberritzeko.

GORKA BEREZIARTUA

URTEURRENA ez da, dena den, aitzakia izan: Hendaiaiko Mugati elkarte euskaltzaleko kideei ikuskizuna gustatzen zitzaien eta horregatik ekarriko dute agertoki gainera berriz ere. Aurreratu daitezkeen berritasunen artean nabarmentzekoa da protagonista batzuk berberak izan arren, ilea urdinago ekarriko dutela okasiorako; baita 1980ko hamarkadako emanaldietan ez bezala, zigarroek itzalita eta pakete barruan iraun behar-ko dutela emanaldia bukatu eta teatrotik atera arte, Osasunaren Mundu Erakundearen aginduak.

Serio-edo jarrita, musikari lanetan Ordorikaren ordeiz Xabi Strubell ariko da; eta hogei minutu inguru erantsiko dizkiote jatorrizko ikuskizunari, azken urteotako testuak ere irakurtzeko. Hasier Etxeberria Mugatiko kideak azaldu duenez, obra berreskuratzea ezinezko misiotzat jo zuten hasieran –“bai zera, hori hilda dago” esatera iritsi omen zen baten bat–, baina hilda ez, lozorroan zegoen; eta esnatu zenean, ez zen dinosauro bat. “Bilera bat jarri Tolosan, hitz egin eta Atxagak baietz”. Hori bezain erraza izan da negoziatzioa eta hori bezain zaila, *Henry Bengoa Inventarium* beste leku batzuetan egiteko eskaerei momentuz ezetz esatea –Bartzelonatik eta Donostiatik jaso dituzte deiak, besteak beste–.

Objektuen indar narratiboa

Zer da baina *Henry Bengoa Inventarium*, halako ikusmina eragiteko? Literaturaren mugetatik harago esploratu zuen ikuskizun gisa ulertzetik etor daiteke erantzuna. Testua liburutik irten zen Atxagaren eta konpainiaren emanaldietan eta irakurle bakartiak –baita irakurle ez zirenak ere– taldean joan ziren antzokietara.

Diziplinak elkarlotu zituen, musika, literatura, antzerkia... Ez zen lehenbizikoa izan hori egiten, sarritan ahaztu egiten dira lehenago JosAnton Artzek egindako lanak, baina Atxa-

**HENRY
BENG OA
IN VEN
TARIUM**

**Bernardo Atxaga | Jimu Iturralde
Xabi Strubell**

Maiatzaren 31n, 8:30ean, Varietés antzokian

HENDAIA

Antolatzailea: MUGATI www.mugati.com

HENDAIKOKO HERRIKO ETXEA VILLE D'HENDAYE

aniza komunikazio grafikoa

berria info

eitb

gak berak Hendaiaiko emanaldiaren harira *Berriari* egindako adierazpenetan onartu zuen, horren kontzientzia handirik eduki ez bazuten ere, “sakonean” Ez Dok Amairuren eragina izan zutela.

Lehenbizikoa izan zenentz, hori ez da garrantzitsuenak. Inporta duena da bere garaian ikusi zuten askok, beste hizkuntzetan aurkitzen ez zituzten gauzak aurkitu zizkiotela. “Lebitatzen atera nintzen” dio Etxeberriak, lehenbiziko aldiz ikusi zueneko gomutan; “hau amerikanoek ez dute” pentsatu omen zuen; “sala hartan geunden denok irudipen bera jaso genuen”. Etxeberriaren ustez testuaren narratibotasunak asko lagundu zion jende artean zabaltzerako orduan eta, analisi sakonagoa eginez, aurrerago Atxagaren literaturan maiz agertu den objektuak ordenatzeko joera nabarmendu du, “nola metroko billete txiki baten atzean idatzita dagoen zerbait izan daitekeen narratiboki potentzial handikoa”. Henry Bengoaren ausentziaren eta utzi dituen objektuen gainean eraikita baitago istorioa. Bi hilabete daramatzate lagunek haren berririk jaso gabe eta Hanburgon zeukan azken helbidera joango dira. Ez dago han, alokatutako etxearen jabeak utzi dituen gauzen inbentarioa egiteko eskatuko die eta horiek ematen duten informazio apurrarekin osatuko da kontakizuna.

Obraren ideologiari kritika

Publikoaren onespina jasotzeaz aparte eman zuen zeresana *Inventariumak*, 1986ko LARRUN aldizkarian Antton Azkargortak egindako kritika da horren lekuko. Ikuskizunaren oinarri ideologikoak aztertu zituen eta istorioan inbentarioaren premia nola sortzen den kritikatu zuen, besteak beste: “Gutenstrasse kaleko apartamentuko jabeak inposatzen du, modu txarrez gainera (oihuka). Eta literatoek inposaketa onartu egiten dute, nahiz eta KRA esan”. Azkargortak burgesaren agintea eta idazleen otzantasuna ikusi zituen obran eta “subjektu eta historiari gabeko saioa” iritzi zion; inbentarioak “gizakiaren jakintza eta gizakia totalizatzen eta sailkatzen saiatzen diren obrak” zirela; “argi ikusten dugu itxuraz sinplea, argia eta esteti-



Bernardo Atxaga, Ruper Ordorika eta Jimu Iturralde Potteko aldizkariaren garaietako argazki batean.

Hendaiaiko emanaldiarekin bat eginez Pamielak berriz argitaratuko du *Henry Bengoa Inventarium* liburu-diskoa

koki erakargarria den muntaia hau ez dela inozentea. Bertan, filosofiaren gai nagusi guztiak planteatzen dira (...) *Inventariumak* Zaharraren alde ebazten ditu aipatu gai nagusi guztiak, literatura alienagarria eginez”.

Kritikak zein neurritaraino asmatu zuen eztabaidatzera sartu gabe —ur handiegia dira horiek—, komeni da gogoraztea 1980ko hamarkadaren bigarren erdian literatura konprometituen eta autonomoaren arteko dialektika eztaba-dagai zela oraindik gure artean. 1985ekoa da, adibidez, Atxagaren eta Txillardegiren arteko ika-mika ezaguna gai bera ardatz hartuta; eta klima horretan Atxagak hartutako jarrerak izango zuen zerikusirik kritiken zorrotasunarekin.

Henry Bengoaren transformazioak

Ikuskizun bakarra balitz bezala hitz egiten da *Henry Bengoa Inventariumi* buruz, baina hasierako emanaldietatik 1988ko urtarrian Hondarribian eskaini zuten azkenekora iritsi arte aldatuz joan zen. Eta diferentia izango da Hendaiaiko saioa ere, musika Xabi Strubellek moldatzeak gaurkotu egingo duelako —Ordorikak lanpetuta dabilelako ez du parte hartuko, baina jatorrizko musikak gaur egun funtzionatuko ote zuen ere ez zeukan oso argi—; baita, lehen aipatu legez, testu berriak irakurriko dituztelako.

Formatu honetan aspaldi taularatu gabe dagoen arren, 25 urteotan Henry Bengoak egin ditu kukuak eszenatokietan. Kandido Urangak 2006an bakarriketa modura interpretatu zuen; eta dantza flamenkora ere egokitu zuten 2000. urtean, *Inventario Henry Bengoa* izenburupean. Ikuskizuneko gidoia Elkarren eskutik argitaratu zuten azkenekoz eskaini ostean, musika biltzen zuen kasetearekin batera. Gero, 2004an, Pamielak berrargitaratu zuen liburua, musika CDra ekarrita, baina jada agortuta zegoen. Eta zegoen jarri dugu, Hendaiaiko emanaldiarekin bat eginez Iruñeko argitaletxeak berriz jarriko duelako salgai. Albiste ona, prestatu duten saio bakarrera joaterik ez dutezant. ■



Oroimineez

GARBINE UBEDAK galdatu zidanean Ellande Larralde Izurako abeslari zenaz hitz egitea *zergatik nik* eskatu nion. Abertzale suharretarik banintza bederen! Santizpiritu zubia lanera joateko zeharkatu eta Aturriari begira erran nuen: funtsean zergatik ez nik? Marea gora zetorren duela lau hamarkadako memoria pertsonala uhinetan itoaz. Ukitua nintzen. Etxamendi eta Larralderen melodia batek akuilatu ninduen: *bidez bide nabilena...*

Bidaia ez zen bukatua.

Jean Errekart lizeoko zooteknia irakasle gisa ezagutu nuen. Arbelan, kreda arinaz, behiak marrazten zizkigun, kabalen ardatz longitudinalak azpimarratuz. Bat-batean dolorez plegatzen zen Aljeriako gerran jasan istripu latzaren ondorioak betirako pairatuz. Klasetik kanpo eskolako kanta-taldeak animatzen zituen eta euskal eresia zaharrak ikertzen genituen... Eñaut Etxamendi zetorkigun gero ekonomiaz aritzera eta uste dut Amikuzeko gazte saldoen etorkizunaren ikusteko moldea formatatu zutela. Ikasi beharraren haraindiko ametsa zen, asteburuetan bien entzuteko parada genuelako. Mobiletaz genbiltzan orduan.

Donapaleuko frantziskanoetan biltzen zen emazte taldearen bilkurekin batera, hurbiltasun ikaragarrian Etxamendi eta Larralderen ahots gurutzatuetaz edo Manex Erdozaintzi-Etxarten poesietaz gozatzea lujo zitzaigun. Opari sinets ezina. Herriak hustu zituen exodo erruralaren garai hitsak gainditzin ari zen Amikuze, ikastola sortzen, jendartea euskararen egoeraz axolatzen. *Terra Nullius* horretan kantak zituen esperantza erroak hazten, bi bozetan eman kanta epikoak. *A capella*. Baliabide hain urriekin barneak noraino irauli zizkiguten ohartzea harrigarria da. Gure izar berezien aldarean daude Etxamendi eta Larralde, Janis Joplin eta Bob Dylanen saihetsean.

Gure Irratiako lehendakaria izan zen, Kantu-txapelketen antolatzailea, aita familiakoa. Oroitzapenak sailkatzean nik kantari mitikoaren irudia atxiki nahi nuke, Etxamendirekin uztarrarian basamortuan oihuz zebilen ahotsarena.

Kantu bat dut laguna...

Itxaro Borda



DANI BLANCO



Eñaut Larralde zenduta, ahots aparta galdu berri du kantagintzak.

Ezterenzubín (Nafarroa Beherea) 1935ean sortua, nekazaria eta irakaslea izan zen lanbidez. 1964tik aitzin, Donapaleuko Errekart lizeoan eman zituen eskolak.


Eñaut Etxamendirekin batera aritu zen plazarik plaza kantari, 1967an jende aurreko lehen emanaldia eskaini zutenez geroztik. Azkena, berriz, 2011ko urriaren 19an eman zuten, Donibane Garazin, *Xabier Lete gogoan* kantaldian. Ordukoa da, hain zuen, orrialde honetan ageri den argazkia (Eñaut Larralde, eskuinean).

Argitaratutako diskoen artean aipagarri ditugu *Joseba Elozegi'ri* (1971), *Garai garrazak* (1988) eta *Antologia* (1998). Azken honek 36 kanta enblematiko biltzen ditu.

Euskal Herriaren alde konprometitua, Enbatako partaide izan zen, eta beste erakunde ugari ere ezagutu zuten haren ekarria. Haur Kantu Txapelketa, Gure Irratia, AEK, ikastola...

IBERNALO landetxea - jatetxea

Gozatu naturaz: hipika, arrantza, golfa, eskalada, amildegiak...



01110 Kanpezu (Araba) - ☎ 945 102 271 / 647 911 484 - www.ibernalorural.com

Antzerkia

Antzokitik atera, ikuslearengana hurbiltzeko

Taberna batean patxada ederrean egon eta antzezlan bat ikustea; horratx Donostiako Poltsiko Antzerki jaialdiak eskaintzen duen aukera. Formatu txiki eta ertaineko hamar proposamen ikusi ahal izango dira, genero eta diziplina anitzekoak.

Tartean bi euskarazko lan: *Ispilua* eta *Beste Aldekoak*.

UXUA LARRETXEA

ANTZEZLANAK ohiko gune eszeniko tradizioaletatik atera eta jendearengana hurbiltzeko asmoz antolatu dute Donostiako Poltsiko Antzerki jaialdia. Ikusleak antzokitara gerturatu beharrean, antzerkia bera da ikuslearengana doana. Donostia Kulturak eta Kultur Ekintza Unitateak XXI. edizio honetarako prestaturiko egitarauan formatu txiki eta ertaineko hamar obra bildu dituzte, horietatik bi euskarazkoak: *Beste Aldekoak* eta *Ispilua*. Maiatzaren 17an hasi zen eta ekainaren 3ra bitartean ia auzo guztietan ikusi ahal izango dira proposamenok, musika eta umorea, bertsoak, antzerkia, magia edota bakarrizketak gurutzatuko dira, aniztasun artistikoa baita, besteak beste, egitasmoaren ezaugarri nagusietako bat.

Poltsiko Antzerkiaren bidez hiriburuko txoko guztietara kultura hedatzea garrantzitsua dela nabarmendu nahi izan du Jon Aizpuruak, Donostia Kulturako Kultur Ekintzako arduradunak: “Auzoetan bizitza kulturala bultzatzea garrantzitsua iruditzen zaigu, bai kasu honetan bezala Poltsiko Antzerkiaren bidez, bai bestelako eskaintza kulturalen bitartez”. Ildo horretatik, adin eta mota guztietako jendea mugitzen den tokietara eraman nahi dute antzerkia; tabernetara nagusiki, baina baita bestelako gune batzuetara ere, hala nola, Martuteneko gazte zentrorra edota Igeldoko Herri Ikastetxera. “Zein ikuslerengana iritsi nahi dugun aintzat hartuz, denetariko tabernak aukeratzen ditugu, eta ondoren, ikusle profila gorabehera emanaldi bat edo beste eramaten dugu bertara”.

Bestelako jomuga bat ere badute jaialdi hau antolatzen dihardutenek: “Euskarazko antzerki ekoizpenari bultzada ematea

bilatzen dugu”. Izan ere, Jon Aizpuruaren esanetan, oso urria da egun, oro har, formatu txiki eta ertaineko antzerkiaren esparruan dagoen euskarazko lanen eskaintza: “Aurtengo edizioan hamar emanalditik bi soilik izango dira euskaraz, baina hori da une honetan Euskal Herrian dagoen ekoizpenaren isla”. Haatik, ekoizpen horretan eragin nahi dute jaialdiko antolatzaileek, eta hori dela eta, aurtengo bigarren urtez jarraian Poltsiko Antzerki Sorkuntza deritzon deialdia kaleratu dute Donostia Kulturaren, Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren eta Euskal Herriko Antzerkizale Elkartearen laguntzaz. “Urtero lehiaketa honi esker, gutxienez euskarazko ekoizpen bat izango dugu”.

Obra sarituak 3.000 euroko ordainsaria poltsikoratuko du, eta halaber, entseguak eta beharrezko prestaketak egiteko hilabetez lekua eskainiko zaie, bai eta emanaldiak lotu ere. Zer hartzen dute aintzat, ordea, antzezlan bat baloratzeko orduan? “Kalitatea, denetariko osagaiak izatea, eta horren ildotik, egitasmo artistikoa originala izatea”.

Euskal nortasuna eta bikote harremanak

Bi dira aurtengo edizioan ikusi ahal izango diren euskarazko emanaldiak. Bat Peio Etxekopar eta Asisko Urmenetaren arteko elkarlanaren fruitu den *Beste Aldekoak* lana da. Ipuina eta ilustrazioa uztartzen dituen inprobisazio honek, euskal nortasunaz dihardu. “Hain ezberdinak diren bi mundu (Frantzia-Espainia, Ipar-Hego, hiri-herri), zerk ditu bildu?”. Hori da mahai gaineratu nahi izan duten galdera. Euren autobiografieta oinarrituz, umorea eta zalantza metodikoa lagun dutela, ikusleak

bere burua hobeto ezagutzeko –edo ez–, gako batzuk ematen ahaleginduko dira. Obra hori maiatzaren 18an eta 19an eskaini dute Intxaurrendoko jatetxe makrobiotikoan eta Igeldoko Herri Ikastetxean; eta 25ean berriz ikusi ahal izango da Altzako El Nido tabernan.

Bestelako proposamen batekin datoz Ion Martinez *Txiki* eta Saioa Royo antzezle donostiarrak. *Ispilua* antzezlanean bikote harremanak eta maitasunaren inguruko hausnarketa jorratu dituzte. Ikusleari erakutsi nahi diote erlazioek aurrera egiteko ondo hausnartzea eta benetan zer desio dugun jakitea funtsezkoa dela, eta horretarako, bikote harreman arruntetan eman ohi diren urratsak ezbaian jarriko dituzte. Ikuskizun hau ekainaren 1ean, Añorgako Jolas Etxean, eta ekainaren 3an, Amarako Via Fora tabernan aurkeztuko dute.


Donostiako Poltsiko Antzerki Jaialdian mota edota estilo denetarioak izango dira nagusi, hala nola, magia, bakarrizketak, edota transformismoa; gustu eta zaletasun anitz dituzten pertsonengana heldu nahi baitute. Arestian aipaturiko euskarazko *Beste Aldekoak* eta *Ispilua* antzezlanez gain, honako hauek ere izango dira XXI. edizio honetan: Sergio Fernandez eta Arturo Gonzalez *El show de la parroquia*, Gorka Aginagale eta Gurutze Beitiaren *¡A guuussto!*, Sleepwalk Collectiveren *Conoce a las sirenas*, Karimen Mi *cuento Chino*, Rafa Fornerren *Me los dices y te lo cuento*, Las pituisterren *El maravilloso mundo de las otras crisis*, Hipo eta Condrias mediku xelebreen *Bi-ologotomia*, Yogurinha Borova eta Nagore Goreren *Solas*.

Kultur Ekintzako arduradunaren iritziz,



Asisko Urmenetaren eta Peio Etxekoparren *Beste Aldekoak* izango da Donostiako Poltsiko Antzerki jaialdian eskainiko duten euskarazko bi lanetako bat. Datozen urteetan euskarazko obra kopurua emendatzeko Poltsiko Antzerki Sorkuntza izeneko saria antolatu dute, urtero obra bat 3.000 euroekin saritzeko.

ekoizpenen zenbatekoa emanaldi kopuruarekin hertsiki loturik dago; “euskarazko ekoizpenaren aldean, gaztelaniazkoak askoz ere ugariagoak dira”. Beraz, euskarazko lanak bultzatzeko, herri eta hirietan ahalegin handiagoa egitearen aldekoa da, beti ere taberna edo gisa horretako espazio informaletan; izan ere, “horrek bizitza kulturala ematen dio herri edota hiriari”. ■



Liburuak

KRITIKA

Iparra galduta

Helduen literatura | ELEBERRIA

Saïra Ruiz Gonzalez

NORK pentsa zezakeen, hizki akats batek haizearen norabidea alda zezakeenik?

Rothner andereak “i” aurreko “e”-aren akats kronikoa du eta ez da horretaz jabetuko, *Like* aldizkariko harpidetza eteteko momentuan, Leike jauna delako baten erantzuna jasotzen duen arte. “Gabon zoriontsuak eta urte berri on” edota “poz-tuko naiz berriro ere halabeharrez nire helbidean galtzen bazara” bezalako mezu axolagabe baina erakargarriekin jolasean ari direla, ezusteko *feeling*-a sortuko da. Handik aurrera, aitopen eta sentimendu sakonenez kargatutako trukaketa epistolarrari ekingo diote. Posta hartu-emanetan garatuz joango den elkar ezagutze prozesu zibernetikoa ez da harpidetza etetea bezain erraza izango. Ibilbide horretan zehar gainditu behar izango dituzten oztipoetan datza Daniel Glattauer idazle austriarraren *Ipar haizearen kontra*.



Leo eta Emmi. Emmi eta Leo. Izena dute abiapuntu bakarra, baina zehaztugabeak dira. Ez dute inoiz elkar ikusi,

Ipar haizearen kontra.
Daniel Glattauer.
Batera saila, Alberdania, 2012.
Itzultzailea: Irati Elorrieta Agirre.

edo ikusi badute ere ez dakite. Azken finean, zer axola du? Adinik ez, fisikorik ez... zer dira baina? Leo eta Emmi errealitate fisikotik kanpo bizi diren hitzak besterik ez dira. Elkarri idazten diotenetik eraikiz joango diren fantasiazko irudi birtualak.

Laster batean irakurtzen diren ironiaz zein umorez jositako email egituradun elkarrizketa laburretan, sentimendu konplexu eta paradojikoan lora-tuz doaz: ezinbesteko bilakatu den, baina gure egiazko munduaren parte ez den pertsona batekiko menpekotasuna, fisikotik urrunago garena komunikatzeko beharra, pertsonalki ezagutzeko irrika eta laztanen desira, baina gustuko ez izateak eragindako oinazea. Helduko al dira inoiz, errealitate bilakatu-tuko dituen kontaktu fisikora? Emmik dioenez “erantzunik izango ez dutelako kitzikagarriak gertatzen zaizkigun galderak egiten ditugu”, eta aurretiko galdetuko du: “Leo, ezagutu nahi nauzu?”. Galdera horren erantzunak zintzilik irauten duen bitartean, soilik, zilegi izanen da elkarren artean sortutako *feeling*-a elikatzen jarraitzea. Hura baita, aldez aurretiko morboa piztuta mantentzeko ezinbesteko sugarra.

Idazleak topaketa egunerako prestatzen gaitu eleberraren amaieran. Izan ere, gertakari batekin harritzen gaitu, zein da gertakari hori? Berriz ere, haizearen norabidea aldatuko duen hizki akats bat.



tradebi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradebi.com

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Haize berri bat
Etxe.
Baga-biga.
Iraupena: 35'35".
11 euro.

Bestelako doinuen etorrera

BERRIZTARRAK ez du etenik hartu musika lehiaketa bat irabazi eta musikaren gorpilean hanka jarri zuenetik. Honako hau laugarren diskoa da eta azken sasoiarako talde-izaerako proiektuetatik bikotera pasa da oraingoan. Bere musikak beti izan du euskal rockeko hainbat kantariren oihartzun nabaria eta hemen ere bada, baina *Heldu eskutik* izeneko aurreko diskoa egiterakoan lurrean utzi zituen arrasto txikiak handi egin dira eta oraingoan country, rock amerikar eta

folkaren bidetari ziurtasun handiagoz ekin dio. Kantu hurbilak dira, hunkigarriak, Etxeren marka dutenak eta bikotean plazaratutakoak, baina Iban Gurrutxagak egindako gitarra-lanari esker, bestelako sonoritate batzuk hartzeko gai izan dira. Esango nuke Johnny Cash eta haren senide Petti grabazio estudioa bisitatzeko puntuan izan zirela.

<http://www.myspace.com/etxemusika>

Etxe

«Nire musika ahalik eta zabalena egiten ahalegindu naiz beti»

Aurreko laneko talde izaera galdu eta ia biluzik aterazara Iban Gurrutxagarekin...

Haize berri batek egin dit putz eta proiektua aldatzera bultzatu nau. Kantu akustikoak eta lasaiak egin nahi nituen, jendearen-gandik hurbilago sentitu. Horretarako talde izaera alde batera utzi dut eta bidelagun berria aurkitu; Iban Gurrutxagaren lana izugarria izan da, asko eman dit.



Albiste berria, Hori da dena, Zatoz nerekin, Taupadak, Lurralde bakarra... Kantu gehienek izena eta abizena dute. Lagungarriagoa da aurpegia jarrita konposatzea?

Guztiak ez dute izena, baina kantua askok bai. Errazagoa izateaz gain, sentimendu gehiagorekin abesten dut norbaiti zuzentzen ari banatzaio. Baina garrantzitsuenak entzule bakoitzak kantua bere egitea da.

Lurralde bakarra moduko kantuekin eta oro har disko honekin entzule nagusiagoak hurbilduko zaizkizula uste duzu? Zer esaten dizute entzule nagusiagoek?

Inoiz ez dut nahi izan jende mota jakin bati abestu. Nire musika ahalik eta zabalena egiten ahalegindu naiz beti. Disko akustikoa izateak jende nagusi gehiago erakarri du. Eskertzekoa da helduek ere gazteon musikari arretea jartzea.

Countrya, folka eta popa. Horiek dira disko honetako osagai nagusienak?

Nik esango nuke countrya dela gehien nabarmentzen dena, aurreko diskoekin konparatuz. Hori Johnny Cashen 'errua' izan da. Estilo bakar baten finkatzea baino, nahiago dut beste estilo batzuk nahastu. Aurreko diskoak pop-rock doinuekin sortu nituen. Oraingoan rocka alde batera uztea erabaki dut, eta country edo folk

doinuetan sartzea.

"Atzean ez da ezer ikusten, ezta ere aurrean; ur korronteak idatziko du nire etorkizuna", poesia hutsa. Hitz guztiak zureak dira...

Batzutan nahi gabe ateratzen dira hitz ederrak. Kantu hori Gerra Zibilean Euskal Herritik alde egin behar izan zutenei eskainia da. ■



Ezpalak

JON TORNER

Musikazuzenean atariak jaialdi akustikoa egingo du Andoainen

MUSIKAZUZENEAN webguneak bigarren-goz antolatu du jaialdi akustikoa. Lehenbizikoa Elorrión (Bizkaia) egin zen, eta aurtengoa Andoaingo (Gipuzkoa) Bastero aretoan ospatuko da, hilaren 27an. Kontzertu sorta 19:00etan hasiko da eta musikari hauek hartuko dute parte: Gorka Urbizu, Xabi Solano & DZ, Koldo Soret, Zaloa Urain, Joseba Baleztena, Ain 1, Okene Abrego & Mariano Hurtado, Igor Arzuaga & Luis Vil, Gaizka Insunza, La jodedera, Imanol Ubeda eta Toño Muro. Sarrerak 10 euroan daude salgai (12 euro lehiatilan).




XA2 / CC-BY-SA

‘Urtaroak’ izeneko erakusketa kolektiboa BilboArte zentroan

BILBOARTE zentroan hainbat artista gazteren lanak bildu dituen *Urtaroak* erakusketa izango da ikusgai ekainaren 9ra bitartean. Besteak beste Naia del Castillo, Usoa Fullaondo, Abigail Lazkoz, Txuspo Poyo, Mabi Revuelta eta Eduardo Sourrouilleren obrek osatzen dute erakusketa. Hark irauten duen bitartean, arteari buruzko hainbat mahai-ingurutan parte hartuko dute sortzaileek. Egitasmoz informazio gehiago Bilbaoarte.org webgunean jasoko duzue.

Fermin Muguruza musikari irundarra Zuloak taldeari buruzko dokumental batean lanean hasi da. Proiektua Arrate Rodriguezek abiatu zuen; bere asmoa, emakumeek osatutako talde bat hastapenetatik abiatzea zen —taldekideak hautatu, musika estiloa zehaztu, ñabardura estetikoak zaindu...—, prozesu guztia kamerarekin filmatzeko. Baina Rodriguezek “esperimentua” erdibidean bertan behera utzi zuen eta ordurarte grabatutako materiala Muguruzari bidali zion. Materiala ikuskatzean, “dokumental baten bidez kontatu zitekeen istorio bat” zegoela konturatu zen Muguruza. Orain, irailean aurkeztu gura duen proiektua aurrera eramateko laguntza eskatu du musikari irundarrak, Zuloak.com webgunearen bitartez. Alde batetik, Zuloak taldeak eginiko emanaldietan ateratako argazki edo bideoak bidaltzeko eskatu dio publikoari. Bestetik, filmaren edizioa, postprodukzioa eta errealizazioa burutzeko jendearen diru-laguntzak jasotzeko kanpaina jarri du martxan, Verkami plataformaren bidez.

Antoni Tapiés (1923-2012) pintore kataluniarra obra grafikoa paratu dute Donostiako hiru gunetan: Okendo eta Aieteko Kultur Etxeetan eta Ernest Lluch zentroan. Erakusketak ekainaren 30era arte izango dira zabalik. Orotara 40 pieza bildu dituzte, gehienak 1970eko hamarkadatik 90eko hamarkadaren amaierara bitartean egindakoak. Zerbakiak, trazu eta idatziak eta gurutzeak ageri dira, besteak beste, hori, gris, beltz eta gorri koloreak nagusitzen diren litografietan. Pasa den otsailean hil zen Antoni Tapiés. Surrealismo eta dadaismoaren artean kokatua, eta bere belaunaldiko artistarik ospetsuenetarikoa bat zen.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Atxurra Hotela

Arronategi auzoa z/g
Bermeo (Bizkaia)
Tel. 944 654 404
www.hotelatxurra.com

Abarak

UNAI BREA

Dantza tradizional garaikidea, edo alderantziz

Ari du. Oinkari dantza taldea. DVDa. 2011.
Iraupena: 77 minutu.

1970EKO HAMARKADAKO euskal dantzaren ezta emandako produktuetako bat da Billabonako Oinkari taldea. Azken hamar urteetan, Edu Muruamendiaraz koreografoaren eskutik, bestelako bideak urratu dituzte, garaikidetasunarekin uztartutako ikuspuntu bat eskaintzearen. Hala diote beraiek, *Ari du* ikuskitzuna jasotzen duen DVDarekin batera argitaratutako liburuxkan.

Hainbat modutan deskribatu liteke *Ari du*. Kalitate handiko euskal dantza da, bate-tik. Oinkari ez da Euskal Herrian dauden talde on horietako bat bakarrik. Oinkari elitea da. DVDan ikus daitezkeen hamasei dantzetan zehar, dantzariak agertzen duten prestakuntza tekniko eta fisikoa oso gutxi- ren esku dago Euskal Herrian. Ordu luze- tako lana igartzen da, dohainak ere bai.



Bigarrenik, dantza tradizionalari “beste zerbaite” eransteko lan eskeraren beste kapitulu bat da *Ari du*. Betiko dantzak eta koreografia sortu berriak –Gipuzkoako eta Zuberoako dantzetan oinarrituak– uztartzen ditu Oinkari, baina ikuskizunaren alderik tradizionalenari ere ekarpenak egiten dizkio, eta denak interesgarriak. Ezohiko musika tresnak, jantziak... Lorpen handiena da horren guztiaren batura naturaltasun osoz ikuslearen begi paretik igarotzen den segida izatea. Belarriak ere badu zer gozatua: Juan Kruz Igerabidek idatzi eta irakurritako poemak, euria dutela ardatz, dantzarien jauzi eta urratsen osagarri bikaina dira. Euskal Herritik kanpoko ekarpena *ball de bastons* da, Kataluniako eta Aragoiko makil-dantza, gutxienez XII. mendetik ezagun dena. XXI.ean gaude- nez, ikuskizunaz gain bestela- ko edukiak aurkituko dituzue DVDan, *making off*-a barne. On egin. ■



EGIZU HARPIDETZA
EGIOZU HARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 138 € / Ipar Euskal Herrian 168 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonia

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

ZELOPARRA
HERRIEN PIRIA

Ihesi

IRATI SARASUA ARABAOLAZA

Argazkiak: Orioko Uda Turismo Saila

Euskal Herria ezagutuz:
Orio (Gipuzkoa)



Kostaldearen beste ikuspegi bat

Kayakean lagunartean ibili, Donostiara joan-etorriko bidaiak itsasontziz egin eta, aurtengo berrikuntza, aditu batek lagunduta talde txiki edo handietan arraun egiteko aukera eskaintzen du Orioko Udalak. Oria ibaia protagonista, ura oinarri duten kirolak eginez aisialdiko plan bereziak egiteko parada izango da udan.

“EDERTASUN GUZTIEN LEKU izan nahi duzunez gero, hala izan zaitezzen bizitzaren kantu zaren ibaia, bizitzaren kantu zaren Oria ibaia”. Benito Lertxundik Oria ibaiari abesti bat eskaini zion 1974an. 54 herri gipuzkoar bustitzen dituen ibai zabalak naturaz gozatzeko

aukera asko eskaintzen ditu. Horiez baliatzen jakin du, azken urteetan, ibaia itsasoratzen den herriak, Oriok, kirola egin eta ingurunea ikusi ahal izateko.

Duela zazpi urte inguru hasi ziren Oria ibaian aisialdiko jarduerak eskaintzen; kayakean ibiltzeko

aukera eta barkuan Donostiara joan-etorria izan dira orain arteko eskaintzak, azken hori, igande arratsaldetan kirol portutik abiatuta. Txango bera egiten da ontziz Donostiako Aste Nagusian, baina kasu horretan xedea su artifizialak ikustea da.

Orio, itsasadarretik ikusita.





Kayakekin egindako txangoak arrakastatsuak dira.

Ezkerrean, ekaina bukaeran zabalduko duten teknifikazio zentroaren maketa.

Aurten eskaintza zabaldu eta arraunean aritzeko aukera eman dute. Orion arrauna eta piraguismoaren teknifikazio zentroa eraikitzen ari dira, eta hor, bi kirol horiekin lotutako jarduerak ez ezik, aisialdiko ekintzak antolatzeke gunea egingo dute. Orioko Arraun Elkartearekin elkarlanean, Udalak arraun egiteko jarduera antolatu du.

Lagunartean egiteko ariketa

Jarduera horrek hainbat atal izango du. Alde batetik, azalpen teorikoak eskainiko dira, eta ostean ibaian arraunean egiteko aukera eskainiko dute. Ekintza hori bukatzean,

Arraun Elkartearen historia azalduko dute: zein bandera lortu den, eta abar. Beti ere Arraun Elkarteko kideak arituko dira, bai azalpenak ematen, baita ibaian arraunean aritzen direnean patroiz ere.

Bi bide ditu parte hartu nahi duenak: programa finkoa eta ordutegi aukeraketa. Lehenengoan, astero ordutegi finkoa ezarrita egongo da, eta Orioko Turismo Bulegora deituta izena eman ahal izango da parte hartzeko. Bigarren, berriz, taldeek nahi duten eguna eta ordua hautatu ahal izango dute. Egun-pasa bereziak egiteko asmoarekin sortu da ideia hori, jendearen ordu-

tegiei egokituta. Baldintza bakarra itsasgora egotea da.

Taldeak gutxienez lau lagunekoa izango dira, eta gehienez 15-20koak. Pertsona kopuruaren arabera ontzia aukeratu da; lau lagunekoa taldeak batean ibiliko dira, seikoak trainerillan, eta 10-12 inguru badira, traineruan.

Ekainaren amaieratik aurrera emango da zerbitzua, baina data oraindik ezin dute zehaztu, teknifikazio zentroan obrak bukatzen ari direlako. Aurreikusten dute San Pedro festen inguruan egitea lehenengo jarduera.

Natura, kirola eta paisaia

Kayakekin egindako txangoen aurrekaria du arraunketaren egitasmoak. Lehenbizikoarekin oso esperientzia ona izaten ari dela dio Orioko Udaleko turismo teknikari Idoia San Sebastianek: "Ondo pasatzeko modukoa da, eta kontuan izan behar da gerturatzen direnek ez dutela zertan jarduera hori egiten aurrez jakin, bertan irakatsiko diete eta".

Asko aldatzen da ikuspegia ibaitik edo herritik bertatik; Oria ibaiaren itsaslabarra leku ederra da ikusteko. Ekintza hauetan kirola, paisaia eta natura uztartzen direla azpimarratu du turismo teknikariak; horrek egiten ditu jarduerak berezi. ■



Bisita tu Ihesi.com, aisialdirako webgune parte-hartzailea.



**DONE JAKUE
BIDEAREN
INTERPRETAZIO
ZENTROA**

ORIO



ORIOKUDALA Kale Nagusia, 17 • 943 83 09 04 • orioturismo@gmail.com




www.oriодonejakue.net

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:

1. Ihardun. Neba-arrebaren semea edo alaba. 2. Zailtasun askoren ondoren. Euskal Herria. 3. Hiru, erromatar zenbakiz. Usaindu. 4. **Argazkian**. Urtea banatzen den hama-bi zatietako bakoitza. 5. Landa, salbu. Oihanak. Edo. 6. Ibaien eta itsasoaren ertzetako harkoskor. Idi-demak egiteko leku. 7. Balio handiko gauza. Lurra lantzeko eta harrotze-ko erabiltzen den lanabes. 8. Trebe, abil. Erantzuna.

Goitik behera:

1. Jendaurreko ekinaldi. 2. Ugaztun haragijalea, otsoaren antzekoa. 3. Mutu. Materia mota desberdinetako bakoitza. 4. Nitaren sinboloa. Elipsearen antza duena. 5. Izukaitz. 6. Itsaso, hitz-elkarteetan. Xenonaren sinboloa. 7. Eginkizun. Atsedeen-garai, lanuzte. 8. Liskarra. 9. Betidaniko. 10. Indar gutxiko. Bi ken bat. 11. Nago. 12. Luze, goi. 13. Apur bat bustia. 14. Zerbaiten adierazgarri den irudizko zeinu. 15. Egurra.

Sudokuak

Erraza

4	1							
	3	5	7	9	8			
				4	6	3		
				6	9	5	7	
9		7	5		1	6		2
	5	4	8	2				
		6	9	7				
			2	8	4	7	5	
						8		4

Zaila

	5			9		2	1	
1		8			5			7
			6					
	9		2					
	4	5	7		9	8	2	
					4		9	
					6			
6			9			3		2
	3	9		1			4	

Soluzioak

4	6	8	3	1	5	7	2	9
3	1	4	2	8	6	7	5	9
9	5	4	8	2	7	1	3	6
6	9	5	2	7	1	3	4	8
8	7	3	5	1	6	4	2	9
1	2	3	4	6	9	5	7	8
7	8	1	4	6	3	2	5	9
2	3	5	7	9	8	4	6	1
4	6	1	3	5	2	9	8	7

Erraza

Zaila

7	3	9	5	1	2	6	4	8
6	1	4	9	7	8	3	5	2
5	8	2	3	4	6	1	7	9
2	7	6	1	8	4	5	9	3
3	4	5	7	6	9	8	2	1
8	6	1	2	5	3	7	6	4
9	2	7	6	3	1	4	8	5
1	6	8	4	2	5	9	3	7
4	5	3	8	9	7	2	1	6

Ezker-eskuin: 1. Ekin, Iloba. 2. Kostara, EH. 3. III. Usanatu. 4. Tolosa, Hilt. 5. At. Basoak, Nahiz. 6. Legan, Probaleku. 7. Altxor, Altxur. 8. Idoi. 9. Aharra. 10. Baita. 11. Naitz. 12. Alhu. 13. Heze. 14. Ikur. 15. Zura.

Goitik behera: 1. Ekitaldi. 2. Kaitze. 3. Isl. Gal. 4. Nt. Obalo. 5. Ausart. 6. Itas. Xe. 7. Lan, Opor. 8. Aharra. 9. Baita. 10. Baita. 11. Naitz. 12. Alhu. 13. Heze. 14. Ikur. 15. Zura.

Errantzera: 1. Ekitaldi. 2. Kaitze. 3. Isl. Gal. 4. Nt. Obalo. 5. Ausart. 6. Itas. Xe. 7. Lan, Opor. 8. Aharra. 9. Baita. 10. Baita. 11. Naitz. 12. Alhu. 13. Heze. 14. Ikur. 15. Zura.

Noizkoa ote?

Duela aste batzuk Donostiako lagun batzuen etxera joan ginen bisitan. Sartu, elkar agurtu eta egongelako besaulkietan eseri ginen. Altzariak eta koa-droak arrunt samarrak ziren baina berehala eman zidan atentzioa antigoalekoa zirudien egur polikromatuen landuriko armairu txiki batek:

– Altzari hori noizkoa duk?
– galdetu nion lagunari.

Eta berak erantzun:

– Dirua geneukan garaikoa!



Kike Amonarizen umorea

**: Hedabide berri
bat sortzera doa
Euskal Herriko
garai berrirako.**

NAIZeko parte izan nahi baduzu,
sartu eta erregistratu:

<http://sortzen.naiz.info>



naiz:

hedabidea zara



Osasuna

JABIER AGIRRE

Etxeko istripuak: nola jokatu?

URTERO-URTERO ehunka mila istripu baino gehiago gertatzen dira etxeetan. Bizkor eta zentzuz jokatzeari funtsezkoa da kasu horietan.

Etxean gertatzen diren istripuen artean erorikoak dira usuenak (%41), baina horiez gain oso arruntak dira ebaki eta urratuak (%23), kolpeak, takatekoak (%13) eta erre-durak (%10), Espainiako Osasun eta Kontsumo Ministerioak argitaratu duen *Etxeko eta aisialdiko istripuen detekzioa* izeneko txostenaren arabera. Zer egin behar den eta zer saihestu behar den jakitea ezinbestekoa da istripua larria izan ez dadin.

Erredura arinak

Garrantzitsuen ur hotz ugarirekin bustitzea da, zauria txorrotaren azpian denbora luze samarrean mantenduz, eta larruazalera itsatsi ez bada bakarrik kendu arropa. Kortikoidea duen krema bat eman daiteke zaurian gaza bat erabilita, baina erredura aurpegian, lepoan edo genitaletan badago ez da inoiz estali behar.

Babaren bat agertzen bada, ez saiatu hura lehertzen edo irekitzen bertako likidoa ateratzeko, infektatzeko arriskua dago eta. Zoaz larrialdietara erredurak anpoilak, puslak edo babak badauzka, edota kolorea zuria, belzkara edo marroia bada; baita erredura oso handia bada ere, noski.

Ebaki txikiak

Garbitu ondo ingurua, xaboi eta ur ugarirekin, edo serum fisiologikoa-rekin. Ondoren estali gaza batekin,

odoljariora eten arte. Ez saiatu sekula odoljariora alkoholarekin gertatzen. Alkoholak, baita farmazikoak ere, odol-hodiak ireki egiten dituenenez, zauria buxatzea eragozten du.

Ebakiak odol-galera handia eragin badu, edo odoljariora, txikia izan arren, ez bada gertatzen, joan berehala larrialdietara, zauria zantpatzeari utzi gabe.

Zerbait kontrako eztatitok joatea

Janari zati bat beste pertsona baten eztatitokian trabatuta geratu bada eta arnasteko zailtasuna baldin bada, jar zaitez haren atzealdean eta inguratu gerrialdea besoekin, azkeneko saihets-hezuraren parean. Jarri eskuineko eskua, itxita, sabelaren gainean, eta beste eskua bularraren beheko aldean, bata bestearen gainean. Sakatu gogor eta bat-batean, gorantz, bi eskuekin. Hori egin ondoren, gaixoak ez badu janari zatia kanpora bota, deitu larrialdiei. Ez da komeni bizkarrean kolpeak jotzea, nahiz eta kolpe arinak izan.

Deskarga elektrikoak

Ez ukitu erasandako pertsona zuzenean, elektrizitatea batetik bestera igaro ez dadin. Halaber, eten korronte elektriko berehala, deskarga gerarazteko, edo aldentu erasandakoa indar elektrikoaren iturritik, egurrezko edo plastikozko



WWW.REVISTANAMASTE.COM

objektu bat erabiliz, kontakturik egin ez dezan. Estali manta batekin deskarga elektrikoak jasan duen pertsona, eta eskatu laguntza berehala.

Produktu toxikoak irentsi

Lixiba, amoniakoa edo antzekoak badira, ez da komeni gorakoa eragitea, ahoko eta eztatitoko ehunek berriro ere substantzia horiekin kontaktua izango luketelako. Onena informazio toxikologikoko argibideen telefonora deitzea da, larrialdietara joan aurretik.



Babeslea: iametza Interaktiboa

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza^{interaktiboa}

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Ezpeletik Espeletia

XVIII. MENDE AMAIAN Hego Ameriketako iparralde osoa bere menpe zuen Espainiako erregearen ordezkotza Sevillan jaiotako (1739) eta Iruñean hildako (1823) Jose Manuel Ignacio Timoteo de Ezpeleta y Galdeanok betetzen zuen. Ederki bete ere Boliviako Andeatako Calisaya mendian *Cinchona calisaya* kino arbola aurkitu zutenean. 1792an hedatu zuten haren berri.

XX. mendean, 1939an, Errepublika garai sutuan Madrilgo Baratze Botanikoaren zuzendari izan zen Josep Cuatrecasas i Arumí (1903-1996). Botanikari handien artean handienetako bat, kataluniarra eta mundu osoan ospetsua. Gerraren panorama ikusita, Prado Museoko artelanekin batera Botanikoko bildumetan jasotako landare lagin garrantzitsuenen kutsak salbatu zituen. Eta Franco diktadorea madarikatu eta hark agintzen zuen artean ez zuela sekula gehiago

Espainian lan egingo zin eginez alde egin zuen. Unibertsitate entzutetsuenek, zeinek baino zeinek, eskaintza politik eginagatik hark hara! Kolonbiara joatea erabaki zuen. Lehendik bertan izana zen eta hango Ande mendi izugarrietako landaredia gustatu, nonbait. Eta joan bazen joan zen; laster igarri zion botanikak. Ordura arte ezezagunak ziren mila landare espezetik gora deskribatu eta jaso zituen. Denen artean, ordea, bi landare multzo kuttun. Txokolatea ematen duen landarearen *Theobroma* generoa eta *Espeletiinae* familia. Azken horretakoa da beraren omenez izendatutako *Espeletia cuatrecasasii* espeziea.

XVIII. mendeko erregeurde zen Ezpeleta Konde haren omenezko izena da *Espeletiinae* familia, eta beste batzuen artean bertan biltzen dira *Espeletia* bezala *Espeletiopsis* eta *Coespeletia* generoak. Andeatako landare enblematikoenak dira. Hango eremu mortu

zakarrenetan, ia beste inork iraun ezin duen lurretan hantxe bizi dira, muturreko baldintzetan, baita 4.300 metrotik gora ere. Eguzkiak eta haizeek erretzeko arriskuari aurre egiteko hostoak, goi eta behe, iletuak dira, bilo mehezko ilaun trinko batek estaltzen ditu.

Estatu kolonial faxista baten erregeurdea zena eta estatutari faxista berak erbesteratuarazitakoa, bi lagun uztarri berera lotu zituen zoriarekiko ezusteko bat medio, Ameriketako landare multzo interesgarrienetako batek euskal izena darama, *Espeletiinae*.

Espeletiinae familia basamortu hotzen zalea zela bazekiten bi lagun horiek, Ezpeleta abizenaren jatorria, ezpela (*Buxus sempervirens*), hobekien lurralde hezeenetako lur gozoenetan hazten dela ba ote zekiten?

PARAMO-CC BY SA



Espeletia pycnophylla espezieko aleak, El Angelen (Ekuador).



Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)



943 453 588 · www.sigacus.com

Lore-lan
Lurez S. Coop.

Lorezaintza proiektuak
Mantentze-zerbitzua

Tel. 609 42 45 47 · Faxe: 943 79 49 12 · lorelan@euskalnet.net

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Historiako gerrarik luze eta baketsuena

SCILLY UHARTEAK (INGALATERRA), 1651. Ingalaterrako bigarren gerra zibila amaitzeaz zela, alderdi parlamentarioak ia lurralde osoa hartua zuen eta Kornubia mendebaldeko uharte sorta hori erregezaleen azken gotorleku bilakatu zen.

Herbehereetako Probinzia Batuek independentzia lortu zuten, espainiarren aurka 80 Urteko Gerran (1568-1648) borrokatu ondoren. Ingelesak holandarren aliatuak izan ziren gerra horretan, eta, horregatik, Herbehereek Ingalaterrako gerra zibilean Oliver Cromwell buru zuten parlamentarioen alde egitea erabaki zuten. Baina erabakia hartzerako Scilly Uhartek ziren alderdi erregezaleen esku zegoen lurralde bakarra, eta ez zuen zentzurik gerra herrialde osoari deklaratzeko. Hortaz, uharteei soilik deklaratu zieten gerra, eta Herbehereetako ontzidria Scilly aldera abiatu zen, urte batzuk lehenago jasotako laguntza itzultzeko prest.

Baina deklarazioa eta berehala, 1651ko ekainean, Robert Blake almirantea buru zuen flota parlamentarioak erregezaleak errenditzera behartu zituen. Oliver Cromwellek, berehala, Tresco uhartean gotorleku bat eraikitzea erabaki zuen (argazkian),



Oliver Cromwellek 1651. urtean eraikiarazi zuen gaztelu eta armategia, Tresco uhartean (Scilly Uhartek). Orduantxe amaitu zen Ingalaterrako bigarren gerra zibila, baina, historiako gerrarik luzeena, 335 urteko gerra, hasi berria zela.

MIKE HARCUM

monarkia parlamentarioaren aldekoen nagusitasunaren seinale. Herbehereetako ontzidria, jakina, iritsi bezala erretiratu zen, tiro bakar bat bota gabe. Baina gerra deklarazioa bertan behera uztea ahaztu zitzaion.

1985ean, Roy Duncan historialaria Scilly Uhartetako Kontseiluko presidentea zen. Holandarren gerra deklarazioaren “mitoaren” berri zuen, baina ez zekien benetan deklarazio ofizialik izan zen, ala mendetan zehar ahoz aho elikatutako legenda hutsa. Berak ordezkatzeko zituen uharteak oraindik gerran ote zeuden argitzeko, Herbehereen Londresko

enbaxadara gutun bat bidali zuen. Enbaxada gaiari buruzko dokumentazioa aztertzeaz arduratu zen, eta deklarazioa benetakoa zela eta oraindik indarrean zegoela erantzun zioten historialariari. Duncanek uharteak bisitatzeko gonbitea luzatu zion Rein Huydecoper enbaxadoreari, eta, hala, 1986ko apirilaren 17an, gerra ofizialki “hasi” eta 335 urtera, bake ituna sinatu zuten.

Ofizialki, historiako gerrarik luzeena da. Eta batzuentzat alferrikakoena izan liteke, baina, besteetan ez bezala, gerra honetan ez zuten inor alferrik hil.



Arrastoak

Egutegi maia zaharrenak ez du munduaren amaiera iragartzen

SCIENCE




SCIENCE aldizkariak argitaratu berri duenez, AEBetako arkeologo talde batek orain arte aurkitutako egutegi maia zaharrenak atzeman ditu IX. mendeko hieroglifiko sorta batean. Ilargiaren faseak, eguzki egutegia eta Marte, Artizarra eta Merkurioren urte-

ko faseak jasotzen ditu. Mundua aurtentzen amaituko dela dioen aurreikuspenaren arrastorik ez, ordea. William Saturno arkeologoaren arabera: “Maiek munduak iraungo zuela eta, gutxienez 7.000 urtetan, berdin jarraituko zuela aurreikusi zuten”.

Makina erreminta Itxaropena Asia da

Nagusiki Hego Euskal Herrian bilduta dagoen makina erremintaren sektoreak urte oparoak izan zituen, eta azken urte hauetan krisiari erantzun gorabeheratsua eman dio, ona batzuetan, ez hain ona bestetan. Baina Euskal Herriko beste sektore batzuek baino hobeto irautea lortu du. Sektorea berreskuratzeko Asian jarri dute begia.

DANIEL UDALAITZ



BECen egingo den Biurtekoak Asiako enpresarekin harremanak estutzeko balioko die makina erremintako ekoizleei.

ASIA ETA, BEREZIKI, TXINA dira egungo itxaropen nagusia makina erremintaren arduradun nagusientzat nahiz osagarrien eta osagaien fabrikatzaileentzat. Sektorearen produkzio ia guztia Hego Euskal Herrian biltzen da, batik bat,

Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian. Krisiak eragina izan du sektorean, Euskal Herriko beste sektore batzuk adina kaltetu ez badu ere. Egungo krisialdia baino lehen birmoldatu ondoren, urtez urte krisia gaindituz joan da, batzuetan beste-

tan baino emaitza hobeak lortuz.

Makina Erremintaren sektoreko arduradunek azaldu dutenez, 2011 urteko ekitaldia oso baikorra izan zen, eta aseak leudeke 2012an antzeko emaitzak lortuko balituzte. Bada, 2012ko lehen hiruhileko



Maiatzaren amaieran hasiko da Makina Erremintaren nazioarteko azokaren Biurtekoa BECen. Urtarrilean jada, 1.022 enpresa zeuden izena emanda.

datuek iragartzen dute iazko ekitaldiaren antzekoa izango dela aurtengoa. 2011ko datu ofizialek diote 1.250 milioi euroko fakturazioa izan zuela sektoreak, aurreko urtean baino %22,7 gehiago. Baina urtea nahiko aldrebesa izan zen, enpresen artean gorabehera ugariekin, eta fakturazioa 2008koa baino %25 gutxiago da oraindik. 2009an sektorea hondoratu egin zen eta 2010eko bigarren seihilekoan baino ez zituen hobekuntza zantzuak erakutsi.

2011n makina erremintako enpresek 771 milioi euro fakturatu zituzten (2010ean baino %22,1 gehiago); erreminta osagarriak pro-

duzitzen dituzten enpresek 320,4 milioi euro (%10,8 gehiago); eta beste teknologia ekoizleek 180,3 milioi euro (%56 gehiago). Adituen arabera, iazko ekitaldiko datu positiboena esportazioak izan dira, %37,8 hazi baitira —sektoreko zifra

2011n aurreko urtean baino %22,7 gehiago fakturatu zuen sektoreak; baina urtea nahiko aldrebesa izan da, enpresen artean gorabehera askorekin

orokorraren %80 esportazioak dira—. Txina izan zen esportazio gune nagusia, Alemania atzean utzirik. Beste esportazio gune nagusi batzuk Mexiko, India eta Frantzia dira.

Dena den, emaitza onak izanagatik ere, 2012ko ekitaldi hau korapilatsuagoa gerta liteke. Horixe adierazi du Jose Ignacio Torrecilla Makina Erreminta, Osagarri, Osagai eta Erreminta Fabrikatzaileen Elkartearen presidente berriak: “2012rako egoera zailagoa aurreikusten dugu, eskaeraren jaitsiera orokorra dela eta, lehen seihilekoan behintzat. Urtearen bigarren zatian egoera irauliko dela eta merkatu nazionala laster oneratu dela espero dugu”.

Maiatzaren 28tik ekainaren 2ra, Barakaldoko BECen Makina Erremintaren Biurtekoa burutuko da, eta aukera aproposa izango da sektorea eta erosleak zertan diren jakiteko, eta Asiak, bereziki Txinak, duen interesa baieztatzeko, Asiako herrialdeetako hainbat ordezkari azokan izango baitira.

Txina, egungo merkatu giltzarria

Zergatik da Asia euskal makina erremintaren sektorearentzako itxaropena? Txina funtsezko merkatua da sektore horrentzat, baina India ere aintzat hartu behar da, harremanetan hasteko bi aldeko interesa baitago, Alemania eta AEB ahaztu gabe. Dena den, euskal makina erremintaren egungo merkatuarentzako giltzarri nagusia Txina da, sektoreko hainbat enpresaburu edo administratzailek jakinarazitakoaren arabera.

Txina euskal makina erremintaren erosle nagusia bihurtu da. Eta ez da ahaztu behar 1.500 milioi biztanle dituen herrialde erraldoiak aukera oso zabalak eskaintzen dituela. Datozen urteetan munduan erosiko diren makina erreminten erdiak Txinak erosiko ditu. Horregatik, Makina Erreminta Fabrikatzaileen Elkarteak dagoeneko merkataritza bulego bat du herrialde horretan, Espainiar-Txinar Institutuaz baliatzeko aukera izateaz gain. Halaber, elkarte sektoreko euskal enpresak Txinan ezartzea sustatzen ari

27. Biurtekoa BECen

Maiatzaren 28tik ekainaren 2ra Espainiako Makina Erremintaren 27. Biurtekoa, BIEMH, egingo da Barakaldoko BECen. Sektoreko berrikuntzen nazioarteko erakusleioa izango da, eta mundu osoko enpresek, bisitariak eta bezeroak bat egingo dute bertan. Urtarri-lean, dagoeneko, 25 herrialdeko 1.022 fabrikatzaile, inportatzaile eta banatzailek izena emana zuten. Alemania eta Italia munduko makina erreminta industriaren erreferente nagusiak dira, eta, berriro ere, protagonismo nabarmena izango dute Barakaldoko nazioarteko azokan. Beste hainbat herrialdeko enpresak ere bilduko dira: Austria, Belgika, Kanada, Txina, Hego Korea, Danimarka, Eslovenia, AEB, Finlandia, Frantzia, Herbehereak, India, Israel, Japonia, Polonia, Portugal, Erresuma Batua, Txekiar Errepublika, Suitza, Taiwan eta Turkia.

Mundu guztiko ahalik eta bisitari, enpresa eta bezero gehien erakartzeko, makina erremintaren sektoreko ordezkariak hainbat bidaia egin dituzte Biurtekoa aurkezteko. Aurkezpen garrantzitsuenetakoa Hannoverreko EMO azokakoa izan zen, elementu giltzarria baita sektorearen merkaturatzean.

Azken BIEMH azoka ere Barakaldoko BECen egin zen, 2010ean. 54 herrialdeko 35.263 bisitari jaso zituen, eta herrialde horietako asko merkatu estrategikoak eta makina erremintaren kontsumitzaile nagusietakoak dira. Guztira, nazioarteko 1.085 fabrikatzaile, inportatzaile eta banatzailek puntako makinak eta teknologiao azken berrikuntzak erakutsi zituzten.

da, bai salmentarako, bai euskarri teknikoko zerbitzuak eskaintzeko. Izan ere, Euskal Herriko eta Espainiako elkarte batzuek euskarri teknikorako zerbitzu bateratua sortu dute, Asiako herrialdean eskaintzeko.

Bategitea, indartsuago izateko

Testuinguru horretan, bi elkartek, AMTk (Osagarri, Osagai eta Erreminta Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte) eta AFMk (Makina Erreminten Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte) bat egitea erabaki zuten iazko abenduaren 16an, elkarte bakarra, indartsuagoa eta sektorea hobeto ordezkatzeko duena eratze-ko. Elkarteak presidente Jose Ignacio Torrecilla (Azkoitia, 1954) izendatu dute; Maherholding Tal-

deko aholkulari nagusia da, eta talde horren barruan daude, besteak beste, Goratu Makina Erremintak eta Shuton.

Elkarte berria 138 enpresa bazkidek osatzen dute, eta denen artean 1.500 milioi euro inguruko fakturatzeko ahalmena dute. Zuzenean 7.000 pertsonen ematen diete lana, eta, zeharka, beste hainbesteri. AMTk 330 milioi fakturatzeko dituzten 60 enpresa elkarri ditu elkartera. AFMk, aldiz, 80 enpresa elkarri ditu, eta denen artean 2011n 1.000 milioi euro fakturatzeko dituztela aurreikusten da. Enpresa horietako gehienak Hego Euskal Herrian daude. Makina Erreminta fabrikatzaile horiei esker, Espainiako Estatua sektoreko herrialde ekoizle eta esportatzaileen artean Europako hirugarrena da, eta munduko bederatzigarrena. ■

Txina merkatu funtsezkoa da sektorearentzat.

Datorren urteetan munduan erosiko diren makina erreminta guztien erdiak Txinak erosiko ditu

BESARO LANDA HOTELA



*Iratiko oihanaren
sarreran*



Tel.: 948 890 350
www.besaro.es
hotel@besaro.es

www.facebook.com/HotelRuralBesaro



Mari Karmen Agirre Lekue

«Euskarak prestigioa ematen digu farmazian»

Euskararen inguruan ari eta “asko egin da, gutxi egin da...”. Duela 25 urte baino askoz euskara gehiago entzuten dela Gasteizen eta gainerako erretolikak. Euskara entzutea deigarri da oraindik Arabako hiriburuan. Eta ezagutzen ez duen kalean gora, kalean behera, errotulazioa euskaraz duen botikaren ondotik igarotzean, geratu eta sartzea erabaki du.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Zaldi Ero

Hemendik hara eta handik hona nabilela, “Agirre Lekue Farmazia” ikusi dut botika atarian. Bertan, “Ortopedia sekzioa”... Euskarazko errotulazioa erabiltzeko erabakia hartu zenuen farmazia ireki zenue-nean...

Euskal Herrian gaude, ezta? Bada-
kit errazago litzatekeela gaztelaniaz
egitea. Azken finean, denek hitz
egiten dute gaztelaniaz. Hala ere,
nik hasieratik gura izan nuen euska-
ra agertu. Euskara ez dago farmazia
munduan larregi sartuta. Beharbada
bestelako arlo batzuetan gehiago
dabil euskara... Nik Salamancan
ikasi nuen Farmazia. Ostera etxera
etorri eta nire inguruan euskaraz
zen dena. Bilbon egin nuen beharra
hamabost urtetan, beste farmazia
batean. Neure farmazia eduki nue-
nean, banekien euskaraz, banekien
gaztelaniaz, “bietara ahal dut egin”,
esan nuen. Errotulazioa euskaraz
eta gaztelaniaz jartzen saiatu nin-
tzen, langileak ere euskaraz zekite-
nak kontratatzen... Auzoan ere
jende asko dago gure moduan,
Gipuzkoatik eta Bizkaitik etorriak,
eta Gasteiz bertoko jendeak ere
badaki euskaraz. Dena dela, gaitze-
na izan da farmaziako behargin eus-
kaldunak topatzea. Horixe gaitzena.

**Farmaziak ez ote du, bada, tradizio-
rik gurean?**

Gasteizen berton ikasten da Farma-
zia, berton dago fakultatea, baina,



“Euskaraz asko egiten dugu, bezeroak ere badakielako euskaldunak garena”.

hala ere, niretzat gaitza izan da far-
mazialari euskalduna topatzea Gas-
teizen! Ezin topatu. Farmazialariok
badaukagu elkargo profesional bat,
eta han, lan-poltsa ere badaukagu
aukeran. Behargin euskalduna gura
izan nuenean, poltsa hartatik jotzea
pentsatu nuen. Baina ezin. Euska-
razko maila halako bat –“goi-maila,
erdi-maila”...–, zutela ipintzen
zuen haien curriculumean, baina
telefonoz deitu eta: “Nik euskaraz,

gutxi”. Ez zuten komunikatzeko
gaitasunik. Nik ez dut EGARIK
eskatzen, ez bestelako titulaziorik,
baina berba egiteko gauza izan dadi-
la. Oraintxe, haurdun dut langile bat
eta bajan izango da udan. Bada,
hiru hilabete lehenago hasi naiz
haren baja betetzeko langile bila.

**Farmazialarien Elkargoa aipatu duzu.
Farmazialari Euskaldunen Elkartea
ere bada, FEUSE.**

Euskal Herriko farmazialari euskaldunak bildu nahi gaitu FEUSEk. Araban dozena inguru gara elkarrean. Sariak, jardunaldiak, irtenaldiak eta euskararen erabilera sustatzeko ekimenak antolatzen ditu, baina lan-poltsarik ez dute. Bizkaian eta Gipuzkoan erraz xamarra da langile euskaldunak topatzea, baina Araban, gaitza. Bertoko farmazialaria, eta euskalduna, gaitza. Hala ere, ikastolan ikasitako bi dauzkat hemen beharrean.

Zure farmazian euskaraz ageri da kanpoko errotulazioa, eta berdin barrukoa.

Kanpoko Jaurilaritzak arautua du. Haren legearen arabera “Farmazia”, “Farmacia”, edo “Botika” jar neza-keen. Pentsatu nuena: “Nik zelan gura dut jendeak ezagutzea nire farmazia?”. Legeak ez digu uzten zelan-halako izena ipintzen, norberaren izena behar du. “Agirre Lekue Farmazia” da nirea. Horrela ipinita, ez dago dudarik, euskaldunak gara. Euskaraz eta gaztelaniaz, berdin ulertzen da hitza, baina euskaraz jarri gura nuen. “Ortopedia” ere ipini gura nuen, ordea, eta aukerak ziren “Ortopedia sekzioa”, edo “Sección de Ortopedia” ipintzea. Lehenengoa ipini nuen nik. Ezin da norberak gura duen guztia jarri, araututa dator. Besterik da erakusleihoan jartzen duguna, dendaren barruko aldean. Batzuetan euskaraz ipintzen dugu, bestetan gaztelaniaz, bietara... Hor libre jokatzeko dugu.

Barrukoak ere euskara ageri du zure farmazian. Zein erabili zenuen irizpide?

Obra egin nuenean, arkitektoa izan nuen ondoan. Euskalduna bera ere.

Mungia-Gasteiz

Mari Karmen Agirre Lekue (1961) mungiarra da. “Han, denda gehienek euskaraz dute errotulazioa. Mungia oso txikerra da. 1960ko hamarkadako emigrazio olde hartan etorritakoak izan ezik, baserritarrak gara denok. Sasoi batean hiria txiki-txikia zen; inguruan dena zen baserria. Orain, alderantziz, baserriak ez dago! Baina badiotsut, nire gurasoak ere baserritarrak izan dira, aita-ama... familia osoa, denak euskaldunak”. Jaioterrian egin zituen lehenengo ikasketak eta Salamancan (Espainia), Farmaziakoak. Bilbon hasi zen lanean 1984an, eta bertan izan zen hamabost urtez, harik eta 2001ean Gasteizen bere farmazia ireki zuen arte.

banatu, euskaraz zer ipini, gaztelaniaz zer, zelan... hasi ginen pentsatzen. Euskaraz ez nuen gaztelaniazko itzulpenik nahi, haien egokitzapena baino. Komunikazio enpresa batera bidali logotipoak, gaztelaniazko esaldiak euskaratzeko eta bueltan itzulpen literala! Hain literala, “Cuidado personal” ere hala itzuli zuten. Norbere burua jagotea adierazi gura genuen, horixe da “Cuidado personal”. Bada, itzulpena: “Kontuz, langileak!”, kar, kar, kar...

Kar, kar, kar...

Google-ren itzultzailearekin egingo zuten! Batek daki! Orduantxe esan nuen: “Ezin liteke izan”. Arratsalde batean paratu nintzen, zerrenda hartu eta egin nuen, azalpen batzuk euskaraz, beste batzuk gaztelaniaz, baina itzulpen literala egin barik. Neuk egin nuen azkenean, arkitektoak lagunduta.



Agirreraren farmaziako bezeroei galdetu zieten ea zergatik joaten ziren botika hartara. Batzuek erantzun zuten euskaraz egiten zutelako zela, eta inkestatzaila harritu egin zen.

Lehenengo, beste zenbait farmazia ikusi eta esaldi batzuk asmatu genituen. Denak gaztelaniaz ikusi genituen. Haiek batu, eta dendan zelan

Alfabetatuta zaude, beraz.

Bai, Labayrun ibili nintzen, Bilbon, hirugarren maila arte egin nuen han. Salamancatik etorri eta Bilbon hasi nintzenean beharrean, iluntzeko zortzietan irten eta euskaltegi-joatan nintzen, alfabetatzen. Moldatzen naiz, beraz, baita itzulpenak egiten ere! Gainera, esperientzia hori izan eta gero ez naiz fidatzen!

Euskara agerian erakustea, plus bat duzu?

Nire ustez, bai. Horregatik egin dut. Arabako Komertzio Federazioak saria eman zidan iaz, euskararen sustapenagatik. Antza, auzoko kideren batek esango zien zer edo zer. “Farmazia bat, errotulazioa euskaraz, bertoko langileak



Babeslea: Hernaniko Udala



...eta busti egin nahi dugu

Euskara, gaztelania, ingelesa...

"Farmazia ireki eta, agure batek: 'Zer egiten duzu hitz zantar hori jarrita, Botika. Zer da hori?' Nik, gaztelaniaz nahiz euskaraz, botika zela hitza. 'Euskaraz? Zertarako duzue euskara?' 'Zuri ez zaizu irudituko, baina niri garrantzikoa iruditzen zait. Eta frantsesa, ingelesa, alemana, txinera eta japoniera jakingo banitu, hainbat hobe! Zoriontsu nintzateke', esan nion. Beste inoiz, beste batek: 'Euskaraz, zertarako? Ingelesa jakin behar da orain!'... Baina ez da horrela. Merkatu prospekzioa egiten ibili ziren orain dela hilabete batzuk, eta pertsona bat egon zen, farmazia atarian. Bezeroa irteten zen, eta galderak. Zer erosi zuen eta hau eta hura. Eta inkestagilearen esana, bera harrituta: 'Askok esan dit euskaraz dakizuelako datorrela hona'. Beharbada, horregatik ez datoz beste batzuk"...

euskaraz...". Eta saria. Aurten ere deitu zidaten: "Artepan okindegiak hartuko du aurten saria, eta pentsatu dugu aurreko edizioetan saria jaso duzuenok ere ekitaldira biltzea, saria indartzeko...". Gero, alfonbra ere jarri ziguten farmazian, "Elebiduna naiz, aberatsa naiz" esanez, euskaraz eta gaztelaniaz. Horrek indartu egiten du gure jarrera. Euskarak prestigioa ematen digu, nire ustez. Bezero euskaldunek etortzen segitzen dute. Fideltasun modu bat da, eta igarri egiten dugu farmazian. Euskaraz egitea plus bat dugu, dudarik ez.

Mungian ere plusa ote zenukete?

Han ez ginateke nabarmenduko. Ez jakitea izango litzateke gaizki han. Jakitea, normala izango litzateke. Gasteizen, ez jakitea da "normala", eta jakitea, osteria, plus bat.

Farmazialari Euskaldunen Elkarte FEUSEko kide zaitugu.



"Gasteizen ez da hainbeste denda ikusten euskarazko errotulazioa duena. Horregatik egin dugu indar gehiago".

Hamabost urte-edo badira elkartekoa naizena. Farmazia bat baino gehiago dira, Gasteizen, elkartekoa, eta horietan, errotulazioa euskaraz erakusten ikusiko duzu. Esate baterako, elkartekak hiztegia egin zuen orain dela zenbait urte, eta errotulazioa euskaraz jartzerakoan lagungarri da hori.

"Gasteizen berton ikasten da Farmazia, baina hala ere, niretzat gaitza izan da lanerako farmazialari euskalduna topatzea"

Zer diozu farmaziara datozkizuen bezeroen gainean?

Gehiena erdalduna da, baina euskalduna ere, hainbat. Egunean, euskaraz asko egiten dugu hemen, bezeroak ere badakielako euskaldunak garena. Eta zaintza aldian gaudenean ere, txartelak asko egiten du. Gu auzo batean gaude, Lakuan, ez gaude erdialdean. Han, seguruenara, lehenengo hitza erdaraz izango litzateke, baina hemen denek dakite euskaldunak garena. Gainera, batzuk horregatik

datoz, euskaldunak garelako. Hori horrela da.

Errotulazioa euskaraz ageri duen denda bakanetarik zarete auzoan. Inguruan gaztelaniaz da dena. Euskaldunarentzat arnasbide zaretela konturatzen ote zarete?

Konturatzen naiz, bai. Gurako nuke denda gehiago egotea errotulazioa euskaraz daukana. Gasteizen ez da hainbeste denda ikusten euskarazko errotulazioa duena. Beharbada horregatik egin dugu indar gehiago. Mungian, berez egingo nuke. Hemen, ahalegin handiagoa egiten duzu. Hamaika urte daramatzat hemen. 2001ean etorri nintzen. Orduan, lehenengo, "Botika" jarri nuen. Gero, jendea euskalduna zela ikusi nuen, lehenengo langile euskalduna hartu nuen... Esan gura dut apurka-apurka egin dudala bidea. Gaur egun pentsatu ere ez hizkuntza biak ez dakizkien langilerik hartzea. Euskara ezaugarri bat da gure Farmazian. Jendeak badaki, gura badu, euskaraz egin dezakeela bertoko edozein langilerekin. Ez nirekin bakarrik. Edozeinekin. ■





XIII. HIK HASI Udako Topaketak **Donostian, uztailak 3, 4 eta 5**



Nire hezitzaile-profila - Nire ikasleekiko harremana - Ikasleak, bere guraso eta familien islada
Eskola inklusiboa eta aniztasuna – Gure adimena norantz gidatu

SMK: sentitu, maitatu eta komunikatu – Ez dut zigortu nahi – Familia eta eskola

Euskara proben eraikuntza – 1512-2012 Nafarroako konkista eta memoria historikoa

Gortasunaren erronkak – NitikGura idazketa sortzailea – Ipuin tailerra

Irakurketa, bizitza osorako bide-laguna – Matematika material manipulagarriekin – Coahing

Ahotsaren erabilera egokia – Eguneroko emozioak – Txotxongilo tailerra – Origamia (paperoflexia)

Marrazten disfrutatu – Publizitatea gure lagun – Haurrentzako masajea – Yoga saioak

Dantza garaikidea. Espresio bide eskolan – Txantxa, musika, umorea eta animazioa

Antzerki irakasle jantziak – Irakasle magoa – Irakasteko tresnak, iturriak eta dokumentazioa

Informazioa: www.hikhasi.com edo 943 371 408

VII. Mintza Eguna Santurtzin

EKAINAREN 2AN Santurtziko (Bizkaia) portuan elkartuko dira berbalagunak eta mintzalagunak Euskal Herriko VII. Mintza Egunean. Urtero bezala egun osoko egitaraua izango dute: umeentzako jolasak, berba kalejira, bazkaria eta erromeria, besteak beste.

Bestalde, hurrengo egunean Santurtzin bertan Ibilaldia ospatuko da.



Babestu natura hizkuntza gorde nahi baduzu, eta alderantziz

HAINBAT IKERKETAK dio harreman zuzena dagoela hizkuntza eta kultura aniztasunaren eta bioaniztasunaren artean. Ildo horri jarraitzen dio Amerikako Estatu Batuetako Penn State Unibertsitateko Larry Gorenflo ikerlariak. Hark ordea, orain artekoak baino ingurune geografiko txikiagoak aztertu ditu. Gorenflo dioenez, garbi antzeman ahal izan du hainbat ingurutan biodibertsitatea mantendu dela kultura aniztasuna indartsu zegoelako, eta beste

batzuetan alderantziz gertatu da. Munduan hitz egiten diren 6.900 hizkuntza ingurutik 4.800, bioaniztasun aberatseko guneen jaio ziren. Ikerlariaren gomendioa da natura babesteko laguntzak ematen direnean, bertako hizkuntza eta kultura ere kontuan hartzea. Gorenflo dioenez, lehen oso zaila zen biologoek pertsonen begiratzea, orain aldiz, biologoak eta ekologistak konturatu dira biztanleak ekosistemaren parte direla.

Twitter euskaratzeko pausoak



TWITTER SARE SOZIALAK bere blogean *Sei pauso gertuago munduko pertsona guztiengana heltzeko* izeneko artikuluan iragarri du zein hizkuntzetara ireki duten zerbitzua. Katalana, ukrainera, greziera, txekiera, afrikaans eta euskara agertzen dira. Orain 28 hizkuntzatan erabil daitezke twitter eta enpresak berak emandako datuen arabera, milioi erdi bat itzultzaileko komunitatea aritu da lanean. Twitter euskaratzeko ahaleginean hainbat kanpaina egin dira, besteak beste, ARGIAko kazetari Lander Arbelaitzek hasitakoa eta Joseba Kamiok *Maite zaitugu, maita gaitzazu zuek ere* lelopean egindakoa.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:
www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Kalea okupatu

Bere kudeatzaile politikoen –txandakako gobernu autonomiko eta zentralak– eta bozeramaile mediatikoen bidez hitz egiten duen kapitalismoak, beldur die mobilizazio herrikoiei, grebei, manifestazioei, kontzentrazioei, kanpaldiei eta herri-batzarrei. Horregatik, herri sektoreek eta langileek kalea okupatzea nola eragotzi eta galarazi aurkitu nahian ari dira. Debekatzen ez dituztenean, manifestazioa, batzarra edo kanpaldia egiteko denbora-muga legalak murrizten dituzte eta bertan parte hartzen ari direnak atxilotu. Kalea, kapitalismoarentzat eta honen kudeatzaileenentzat, eurena da, eta euren baldintza eta irizpideak inposatu nahi dituzte. Egoera horren aurrean, herri sektoreek eta langileek kalea modu iraunkorrean okupatu beharko lukete, kapitalismoaren basakeria eta bere kudeatzaileen (gobernuak) kolaborazio politikoa salatzen, baita elkartasunean oinarrituriko beste alternatibak diseinatzeko ere.

Ongi etorria egin behar diegu Euskal Herriko gizarte kolektiboek martxan jarri dituzten mobilizazioei, kapitalismo finantzarioak berak sorturiko krisiak eragin duen murrizketa sozialaren kontra ari baitira. Bada dirua bankuak kibratik, gestio txarretik, lukurreria espekulatibotik salbatzeko, baina ez osasungintzarako, hezkuntzarako, menpekotasunari aurre egiteko, edo enplegu duina sortzeko. Joan den asteburuan eta datorrenean, Hego Euskal Herriko lau hiriburuak milaka lagunek okupatu dituzte –eta okupatuko dituzte–, 50 talde sozialek eta sindikatu abertzaleek deituta. Gizarte zerbitzuetan, lan arloan eta soldatetan egin diren murrizketak salatzea dute helburu. Murrizketa horiek epaitegietara eramango dituztela zinikoki dioten administrazio publikoen kontra ere mobilizatuko dira. Administrazio hauek, gutxienez, “foru-baimena” erabili beharko lukete eta murrizketak ez aplikatu. Zinismoz eta hipokrisiaz aritzen diren bitartean, kalea okupatzea eskubidea eta betebeharra izango da.

Juan Mari Arregi



Zer dago Europar Batasunetik at?

MEMORIA eta Bizikidetza kongresuak ez du berrikuntza handirik utzi orain arte esparru horietan esandakoez. Zakar esanda, Estatuaren bandoak bere orain arteko tesiak berretsi ditu honako ardatzaren inguruan: zilegi ez zen biolentzia bakarria izan da, ETAre-na, eta memoria ere horren gainean eraiki behar da. Ofizialki onartzen dira beste zirrikitu batzuk, GALena bezalakoa esaterako, baina ez memoria eraikitzeko.

Kongresuan, alabaina, izan dira bestelako zirrikituak ere. Carmen Gisasolak hitz egitea nahi zuen PSEk eta, seguruenik, hori aurrerapena zatekeen gisa horretako ekitaldietarako, bizikidetzari dagokionez, Langraitzeko presoen taldean biltzar honetan defendatu direnak baino bestelako posizioak defenditzen direlako. Baina PP gailendu eta Gisasola ez zen bilkuran izan.

Biltzarraren tesiak albo batera utzita, ongi da gatazkan izan diren sentsibilitateek hausnarketa egin dezaten sufrimenduaz, biktimez, elkarbizitzaz, memoriaz... norberenetik bakarrik has daitekeelako geroan hausnarketa partekatua izango dena. Ezinbesteko berotze ariketak dira, bando bakoitzak apurka barnera dezan zer irentsi beharko duen, zertan amore eman, zertan ez... ateratzekotan horietatik aterako delako etorkizuneko bizikidetzaz. Memoria bakarrarekin ez, baina memoria pasarte partekatuekin bai; egi osoarekin ez, baina egi zati partekatuekin bai; justizia osoarekin ez, baina bakoitzaren minen estalgarri beharko lukeen justiziarekin bai. Erabat ase ez, baina bizikidetzaz berriari ekiteko adinako osagai partekatuekin bai.



Halako zer bait izango da gatazka honetan murgildutakoen arteko hausnarketa bateratuak utziko duen humusa, eta horren gainean sortuko da bizikidetzaz berria, etengabe ureztatu beharko dena, berriz iraganeko akatsetan eror ez dadin. Ureztatze horrek iragana bakarrik ez, etorkizuna ere behar du. Eta edonork daki hori guztia ezin dela eraiki oraindik ere Estatuaren praktikak diren ilegalizazioa, jazarpen judiziala, sakabanaketa eta gisakoekin. Eta, seguruenik, ezta ere desagertu gabeko ETA batekin. Oraindik, hala ere, Moncloan bi klabe nagusi bide dira: bata mendekuarena, horrek eskuinaren kohesioa ematen diolako; bestea, etekin politikoarena, alde horretatik presoen munduan du aukera handiena epe laburrean eta hori baliatzen saiatuko da.

Eusko Legebiltzarretik sortu nahi den Memoria, Bizikidetzaz eta Giza Eskubideen Institutua ere beste urrats bat da etorkizun partekatu horren eraikuntzan. Oraindik ez da seguru legealdi honetako lege proiektu batetik sortuko den, baina hala izan edo ez, garrantzitsuena hurrengo legealdian etorriko da, ezker abertzalea ere zutoin horien eraikuntzan izango denean.

EUROA ala Europar Batasuna, zer izan zen lehen? Ez da txistea, irakurle, atzera hamar urte egin eta gure memoriak aise kokatzen du zein izan zen lehen; baina egungo hedabide gehienek eta agintarien oihartzunak entzunda, martiztarren batek argi pentsatuko luke euroa lehen eta garrantzitsuena dela. Garaiotan euroa aise gailendu zaio EBri. EBZk agintzen die estatuei eta

ez alderantziz, euroa hondoratzen bada EB osoa ondoratuko ei da. Eta agian bai, baina ez du zergatik, edo ez luke behar, ez behintzat diruak aipatutako agintarien orde, herritarrek hautatutakoek boterea berreskuratu ko balute.

Aste honetan etorri dira Espainiara EBZk izendatutako finantza ikuskariak, Espainiako Bankuaren sinesgarritasuna erabat birrinduz. Espainiako bankuen porrotari prezioa jarriko diote, eta sendatze lanen hasiera agindu. Kontua da zenbat diru jarri beharko duen Espainiako Gobernuak eta horretarako zenbat murriztu beharko duen aurrekontuetatik. Eta miseriarik handiena da erreskate hori bankuek haiek utzitako diruarekin egin beharko duela, izan banku pribatuetako zorra, izan EBZren dirua. Modu geldiezinean, diruaren zurrumbiloan gero eta makurrago doa Espainia. Ea noraino eramaten gaituen. Hori da patua, baldin eta EB euroari gailentzen ez bazaio. Bestela, mereziko ez duen EB izango da, Greziak lehenik eta ondoren beste batzuek ere utziko dutena. Zurrumbiloan eta pobrezian murgildu ahala, Alemaniaren finantza feudalismoa edo Europar Batasunetik kanpoko arriskuen artean hautatu beharko dute herritarrek.



Gure dirutik nork zenbat ostu du eta nora eraman?

Munduko Bankuak eta Nazioarteko Diru Funtsak duela gutxi arte herrialde txiroetako jendeak zukutzen zituzten zintzurretik estututa. Orain Europa da politika berdinen laborategia: estatuak argaldu, zor publikoa aitzakiatzat hartuta. Altermundialistek proposatzen dute erakunde publikoen zorrak auditatu eta bidezkoak ez direnak ez pagatzea.

ORAIN ARTEKOA AHAZTEA HOBE DA, dio Murtziako (Espainia) gobernu autonomoan Ekonomia Kontseilari den Juan Bernalek, kazetariak galdetu diolarik ea nola iritsi diren horrelako defizit handira. Erdaraz nabarmenago geratzen da: “*A veces casi no merece la pena detenerse en por qué hemos llegado a esto*” (El País, 2012ko maiatzak 15, 9. orr). Tsunamiak harrapatu gaituen honetan, hondamendiaren atakan, *corralito*aren mehatxua zintzurrean... hobe orain artekoak ahaztu eta nola edo hala *berriro bira* egitea. Gerrikoak ondo estututa, prefosta.

Alderantzizkoa diote Damien Millet eta Eric Toussaintek AAA. *Audit, Annulation, Autre politique* (Auditoria, Ezabatzea, Bestelako politika) liburuan: hitz egin dezagun nola heldu garen honaino. Alegia, langileek eta oro har herritarrek ez dutela onartu behar azken hamarkadotan bizi-baldintzetan lortutako hobekuntza guztiak desagertzea estatuen zorrak kitatzearen truke.

XXI.eko krisitzarrak ekarri duen aldaketa ederki azaltzen du xehetasun honek: Millet eta Toussaint ari diren eta liburua argitaratu dien erakundeak izena du CADTM *Comité pour l'Annulation de la Dette du Tiers Monde*, hots, Hirugarren Munduaren Zorra Ezabatzearen aldeko Batzordea. CADTM orain herrialde

aberatsetako zor publikoaren auditoria eskatzen ikusteak erakusten du noraino heldu diren munduko multinazionalak, Munduko Bankua eta Nazioarteko Diru Funtsa planeta osora zabaltzen hasita duela hiru hamarkada herrialde txiroetan ezarritako politika neoliberalak. Millet matematiketako irakaslea da Frantzia eta Toussaint zientzia politikoetan doktore, ATTAC mugimenduko liderretakoa.

Tituluko “AAA” horrekin hitz jokoa egiten dute egileek: “Beren herrialdeen AAA kalifikazioa salbatzeko, agintari europarrek, Europako Batzordearekin eta Nazioarteko Diru Funtsarekin elkar hartuta, beren herritarrei ezartzen dizkiete austeritatea, atzerakada soziala eta giza eskubideen urraketa”.

178 orrialdeko liburuan krisia analizatzen dute eta lehertu denetik agintariak hura gainditzeko aplikatu dituzten neurriak, baina salatuz krisiaren errudunak babestearekin batera ondorioak hura nozitu behar duten herritarrei jasanarazten dietenen logika neoliberalak

“Zor publikoaren auditoria on bat da bide bakarra erabakitzeko zor horren zein zati ez den legitimoa, eta ondorioz ezabatu beharrekoa. Horrela, zorra den fardel zamatsu horren azpitik askatuta, europarrek ezarri ahal izango dute

Irudietan, zor publikoaren herri auditoria eskatzen duten hiru afixa. Handiena Alacanteko (Herrialde Katalanak) ATTAC erakundearen kanpaina batena, zeinetan proposatzen baita zor publiko bidegabeta ez ordaintzea. Txikerretan azpikoa Zaragozako da, maiatzaren 3rako gaiaren inguruko hitzaldi bat iragartzen duena. Goikoak joan den martxoaren 17an Lille hirian (Frantzia) burutu ziren jardunaldi baterako deialdia egiten du. Izenburu nagusiak dio “Zorra den lakiotik ateral” eta leloen arteko batzuk dira: “Egin dutenek paga dezatela zorra. Aprobetxatzailea pagatzaile”, “Estatuaren gehiegizko zorpetzea, familia txiroena bezala, eragin dute diru-sarrera publikoen gutxitzeak eta bankuek estatuari kobratzen dizkieten interes handiek”, “Agintariak hautatu dute estatuaren ahalmen eza eta finantza merkatuekiko mendekotasuna”...

bestelako politika bat gaur nagusi den austeritatezkoa, arriskutsua eta bidegabeta etenda”.

Atenastik Madrilerara eta Londresetik New Yorkera mobilizatzen ari diren herritarrei argudio ondo josi bat luzatu nahi diete Millet eta Toussaintek: “Borroka sozial sendoez, ez beste inork, lortu ahal izan du auditoria hori egunen batean egia bihurtzea, apustuaren handiari egokitu zaien logika aldaketa erradikala”. Gertatuko ote da? Ezin jakin. Baina proposamenak badu berez indarra.

Auditoria eta moratoria

Belgikako *Le Soir* egunkarian Dominique Bernsek elkarriketatu du Toussaint, lehen galderan jarrita hedabide nagusiek oinezko soilon buruetan josi dituen *mantrak*: gure finantza publikoak krisian daude, Estatuaren zorrak handiegiak dira, dagokigun mailaren gainetik bizi izan gara, eta orain tokatu zaigu gerrikoa estutzea.

Toussaintek ukatzen du eskema hori: “Krisia sortu da bankuen eta enpresen zor pribatuetatik. Gero bihurtu da finantza publikoen krisi, estatuen esku hartzearen ondorioz. Gure arazoan jatorri nagusia zor publikoan datzala eten gabe zabaltzen dutenen kontra gaude gu. Ez dut ukatzen zor publikoak gaur



bat izan daiteke erabat bidegabea herriarrei galdetu gabe eta haien interesen kontra ezarri bada. Belgikak 20.000 milioi usatu behar izan ditu bankuak salbatzeko, horretarako zorretan sartu behar izan du. Zor hori bidegabea da. Guk ez dugu proposatzen zor publikoaren tituluak erosi dituzten herritarrak zigortzea, oso bestela baizik. Belgikaren zor publikoa nagusiki ez dago oinezko herritarren tituluetan: Estatuak salbatu dituen banku horien eskuetan dago. Justizia besterik ez litzateke horiek behartzea bidezkoa ez den zorra kitatzera”.

Hona proposamena: zor publiko guztien auditoria, aldi berean pagakizunen moratoriarekin, erabakitze-ko zein zati den bidezkoa eta zein ez. Europan haizeak justu beste aldera jotzen du. Europako Banku Zentralak eta Nazioarteko Diru Funtsak erabateko kontrola hartu dute estatuen gain, kapitalen gainerako kontrol oro ezabatu, agintari politikoek sortuak izan arren herritarren edozelako kontrolari ihes egirik jokatzen dute.

Hala ere zor publikoen ezabatzea aurretik ere egin da historian zehar, eta berriro egin daiteke, egileon ustean. “Zorrarena da austeritate planei eta urteotako lorpen sozialen galerari aurre egiteko gakoa. Zorren soka beldurgarria eteteko borroka”.

Ekin diezaiokegu hemen ere auditoriari. Nork non dauzka Bankiak galdu dituen sosak? Eta agintariei sos eske dabilzan gainerakoena, zeinek eraman ditu zertarako? ■



egun handiegiak direnik. Baina ez dute horiek sortu krisia”.

Estatuek ez dituzte aprobatxatu, dio Toussaintek, 1990ko eta 2000eko hamarkadetan beren finantzak hobetzeko eduki dituzten aukerak. Aitzitik, opariak egin dizkiete kapitalista handiei. Horrela harrapatu ditu finantza pribatuen krisiak, eta hazkunde ekonomikoaren gelditzeak ere gehiago hustu ditu estatuen altxorak. Baina “bankuen kutzak aktibo toxikoz beteta daude, Portugalen edo Greziaren bonoek baino askoz arrisku handiagoa daukaten aktiboez”.

Bankuak ez ote ziren salbatu behar? Toussaint eta Milleten aburuz, “herriarren aurrezkiak ziren zaindu behar. Baina bankuen siste-

ma garbitu behar zuten agintariak, akziodun handien patrimonioei zergak handituz. Aurrezki eta kreditu erakunde publikoak sortu edo mantendu behar ziren. Baina iritzi publikoari ezkutatu zaio finantza pribatuek krisiaren leherketan izan duten erantzukizuna”.

Zor publikoa murriztu behar dela? Ezetz diote Millet eta Toussaintek. Eta zerbitzu publikoak mantendu ahal izateko bi ahoko ezpataz borroka egitea proposatu dute: alde batetik fiskalitatea hobetu gehien dauketenei gehiago pagaraiz, bestetik zor bidegabea ezabatu.

CADTMk eta justizia globalaren militanteek milatan esana errepikatzen dute hemen Millet eta Toussaintek: “Legeak bermatutako zor





**ZINKUNEGI
OPTIKA**
Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Kike Diez de Ultzurrun Sagala

PSN

Politikarien artean, inor antzerkilaria bada, Roberto Jimenez da; Nafarroako lehendakariordea eta PSNko idazkari nagusia, alegia. Iduri du aparretan dabilela, bere alderdiko biltzarrean irabazle atera ondoren. Baina hark berak espero baina aunitzez ere oposizio handiagoa izan du; ordezkari sozialisten %80ren babesa izan ordez, doi-doi %60 lortu du. Oraingoan, Manuel Campillo ezezaguna izan du aurkari. Campillok jakin bazekien ez zela idazkari aterako, baina alderdi barruko haserrearen adierazgarria izan da eta nafar gizartean zabaldu den ezinegonaren erakusgarria, murrizketen eta desgobernuaren handiak eta larriak eraginda.

Raxoiren gobernuak murrizketak ezartzen dituen aldi bakoitzean, lehendakariordea berehalaxe agertzen da kazetarien aitzinean, Nafarroan murrizketarik ez dela izanen arrandiaz errateko. UPNkoek berek ahapeka aitortzen dute itxurakeria hutsa dela eta, ahots handiaren ondotik, Jimenez bere aspaldiko adiskide Barcinaren aurrean otzandu, eta UPNren iritzia garaile ateratzen dela. Gizarteak ere susmo bera dauka eta, orain hauteskundeak egitera, alderdi sozialistak, gehienez jota, bospasei aulki aterako lituzke, haiek berek darabiltzaten inkesten arabera. Murrizketek, hortaz, PSNri egin diote kalte; ez, horrenbeste UPNri, eta hori Barcinak badaki. Baina PSNko exekutibako kide aunitz kargudun dira Gobernuan, eta horri kosta ahala kosta eutsiko diote. Oraingoan, alderdikide gehienak alde ditu, baina aurkakoen kopurua gora doa, eta aski litzateke PSN barruko sektore batek jarreraz aldatzea, Jimenezen aulkari astindu ederra emateko. Oraingoan, alde dauzka Lizarberen taldekoak, ORT alderditik aspaldian iritsitakoak (Iruñean gotortuak) eta Euskadiko Ezkerretik ailegatatutako sorta bat. Kontra, aldiz, Erriberako talde gehienak, alderdikide historiko zenbait (Tajadura, Balduz) eta bestelakoak. UGTn, berriz, denetarik dago. Kontra dagoen jendea uztartuko duen izen oneko gidari bat falta da. Nor, ordea? Nor atera da onik PSNren aspaldiko gainbeheratik? Inork eutsi al dio omenari? Nolabaiteko izana duen izen bat Fernando Puras da,



DANI BLANCO

2007ko lehendakariagaia eta NaBairekin akordioa egitearen aldekoa. Madrildik ezezkia eman ziotenean, dimisioa eman zuen behintzat, eta etxe zokora joan zen, karguetatik ihesi.

Barcinak, bitartean, badu Jimenezen ahuldadearen berri eta, zer gerta ere, PPrengan pausatuak ditu begiak. Nafarroatik desagertua, Madrilén gero eta egun gehiago ematen ditu kazetari eskuindarren mikroen artean; bere irudia ederki zaintzen jarraitzeko eta Tolosako tartei ahalik eta etekinik handiena ateratzeko. Madrilén, gainera, azpijokoan aritu da, zertarako eta Nafarroako PPK egin berri duen Biltzarrean bere ukitua uzteko.


« Raxoiren gobernuak murrizketak ezartzen dituen aldi bakoitzean, lehendakariordea berehalaxe agertzen da kazetarien aitzinean, Nafarroan murrizketarik ez dela izanen arrandiaz errateko. UPNkoek berek ahapeka aitortzen dute itxurakeria hutsa dela eta, ahots handiaren ondotik, Jimenez bere aspaldiko adiskide Barcinaren aurrean otzandu, eta UPNren iritzia garaile ateratzen dela »

Gauza jakina da Barcina eta Cervera ez direla batere ongi moldatzen. Biltzarrean, Cerveraren ordez atera den gizona, ordea, oso ongi moldatzen da UPNrekin. Beraz, berehalako batean ez, baina nork daki hauteskundeak ez ote diren 2013an izanen. Susmo hori dute oposizioko hiru koalizioek: Amaiurrek, Geroa Baik eta Ezkerrak. Kontua da, ordea, PSN malkortzea ez dela aski izanen aldaketa eragiteko, gizarteak ikusi behar baitu egiazko alternatiba bat badela. Berrikitan, aurrerapauso bat izan da; hots, Ezker Abertzaleak Geroa Bairen indarra aitortu du eta aitortu, halaber, Geroa Baik Nafarroan eragiteko aukera baduela. Ez da gutxi. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Txondorra erretegia

Harpidedun batentzat
lau lagunentzako afaria

Bizkaia etorbidea, 9/9
Arrasate GIPUZKOA

www.txondorra-sagardotegi.com

1

STM San Telmo Museoa



San Telmo Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Zuloaga, 1
Donostia GIPUZKOA

www.museosantelmo.com

2



Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA

www.artium.org

3



Euskal Eskola Publikoaren 21. jaia

2 kamiseta
neskentzako opari

www.ehige.org/jaia2012

4



Munduko ipuinak

2 lagunentzat opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2322. Argia)

BILBOKO KAFE ANTZOKIA bazkaria

- Aitor Bravo Encinas (Leioa)

EKAINBERRI

- Imanol Irizar Intxausti (Pasaia)
- Kepa Gorordo Basaras (Durango)
- Eihar Egaña Garcia (Donostia)

GARTXOT liburua

- Patxi Azpillaga Goenaga (Bilbo)
- Juan Ignacio Elozei Aldasoro (Berastegi)

INGURU ABENTURA puenting 1. maila

- Amurrioko Aek Euskaltegia (Amurrio)
- Mikel Garmendia Aizpuru (Bilbo)
- Joxemari Muxika Arrieta (Arrasate)

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA haurren kamisetak

- Miren Itziar Enbil (Deba)
- Jon Caballero Gomez (Irun)
- Edurne Zuazabeitia Olabe (Gasteiz)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia



PLUJA SECA

euri lehorra

Jada ikusgai euskaraz!

ARGIAko **multimedia** kanalean



Euri Lehorra

dokumentalak bitartekari
batzuek Hegoafrika eta
Irlanda Iparraldeko bake
prozesutan egindako lana
aurkezten digu.

Lan interesgarria da, pertsona hauek berak Euskal Herriko egoeraz duten iritzia azaltzen baitigute.

TV3 telebista kataluniarrak eta Baleukok egindako dokumentala da, orain arte euskaraz izan ez duguna, eta **ARGIA**k euskaratua.

Dokumentalean parte hartu dute:

JohnHume | WilliamdeKlerk | AlecReid | RoelfMeyer | BrianCurrin
HaroldGood | JonathanPowell | AlexMaskey | PeterRobinson | PierreHazan
DenisHaughey | CharlesVillavicencio | BrandonHamber | MohammedBaba
AubreyLekwane | PaulaLeyden | JuanJoseIbarretxe | RufiEtxeberria
LeopoldoBarreda | JoséAntonioPastor | JoneGoirizelaia | PáulRios

Baleuko
komunikazioa



euskaraz
Bizi
euskara



Gipuzkoako Foru Aldundia